



Gaiñdegia

Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socioeconómico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

Babeslea:

▶ Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava



ARABAKO KUADRILLAK

Lurralde iraunkortasunerako diagnostikoa

2017ko iraila



Babeslea:

▶ Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
▶



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socioeconómico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

0. Aurkibidea

0. AURKIBIDEA.....	2
1. HITZAURREA.....	4
2. DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA.....	6
3. KUADRILLEN ERRADIOGRAFIA LABURRA.....	20
3.1. AIARA.....	22
3.2. AÑANA.....	23
3.3. ARABAR ERRIOXA.....	24
3.4. GASTEIZ.....	25
3.5. GORBEIALDEA.....	26
3.6. KANPEZU.....	27
3.7. LAUTADA.....	28
3.8. TREBIÑU.....	29
4. LURRALDE EGITURA ETA MUGIKORTASUNA.....	30
4.1. GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA.....	32
4.1.1. GARRAIO AZPIEGITURAK.....	32
4.1.2. GARRAIO PUBLIKO SAREA.....	32
4.1.3. HERRITARREN MUGIKORTASUNA.....	33
4.2. GIZA-JARDUERAK ETA NATURA.....	34
4.2.1. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO AZPIEGITURAK.....	34
4.2.2. NEKAZARITZARAKO LURRAK.....	34
4.2.3. NATURA ETA EREMU BABESTUAK.....	35
4.3. HIRIGINTZA ETA EKIPAMENDUA.....	36
4.3.1. ETXEBIZITZA PARKEA.....	36
4.3.2. OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK.....	37
5. JARDUERA ETA EGITURA EKONOMIKOA.....	38
5.1. EKONOMIA EGITURA.....	40
5.1.1. ONDASUN EKONOMIKOEN SORRERA LURRALDEAN.....	40
5.1.2. LURRALDEEN NORTASUN EKONOMIKOA.....	42
5.1.3. LURRALDEEN TRAKZIO EKONOMIKOA.....	46

5.2. EKONOMIA DINAMISMOA	50
5.2.1. ONDASUN EKONOMIKOEN BILAKAERA LURRALDEAN	50
5.2.2. LURRALDEEN NORTASUN EKONOMIKOAREN ERALDAKETA	52
5.2.3. LURRALDEEN TRAKZIO EKONOMIKOAREN ERALDAKETA.....	56
5.3. LAN MERKATUA.....	62
5.3.1. ENPLEGU SORRERA.....	62
5.3.2. LANDUNEN KUALIFIKAZIOA ETA KONTRATAZIOAREN EGOKITASUNA	66
5.3.3. KALITATEZKO ENPLEGUA.....	68
6. KOHESIO SOZIALA.....	70
6.1. HERRITARREN ERRENTA ETA OREKA SOZIOEKONOMIKOA.....	72
6.2. HERRITARREN ONDARE SOZIOKULTURALA	74
6.2.1. HERRITARREN FORMAZIOA	74
6.2.2. HERRITARREN ELEBITASUNA	75
6.3. HERRITARREN JATORRIA	76
6.4. JARDUEREN ETA ERRENTAREN GENERO OREKA	78
6.4.1. INAKTIBITATEAREN FEMINIZAZIOA	78
6.4.2. ERRENTAREN GAINEKO GENERO OREKA.....	78
6.5. GIZA EKINTZAILETASUNA	80
7. METABOLISMO DEMOGRAFIKOA.....	82
7.1. BIZIGARRITASUNA	84
7.1.1. BIZTANLERIAREN BILAKAERA.....	84
7.1.2. GAZTEEN PRESENTZIA	86
7.1.3. EMAKUMEZKOEN PRESENTZIA.....	87
7.1.4. MIGRAZIOEN BILAKAERA.....	88
7.2. BELAUNALDI OREKA	90
7.2.1. EGITURA DEMOGRAFIKOAREN OREKA.....	90
7.2.2. ZAHARTZE DEMOGRAFIKOA	92
7.3. NAHIKOTASUN DEMOGRAFIKOA	94
7.3.1. BEREZKO BIZIBERRITZE GAITASUNA.....	94
7.3.2. BELAUNALDIEN BIZIBERRITZEA	96
7.3.3. BIZTANLERIA MANTENTZEKO ETA ERAKARTZEKO GAITASUNA	98

1. Hitzaurrea

Europako Batasunaren irizpideak jarraituz, Euskal Herriko udalerrien sailkapenaren arabera lurraldearen %80,4 landa eremutzat hartu behar da. Aitzitik, Euskal Herriko biztanleriaren %82,6a hiriburu eta eremu urbanoetan bizi da (lur-azaleraren %17,4an). Aldaketa hau hamarkada gutxitan gertatu da, eta dagoeneko NBE-k 2050 urterako aurreikusitako indize globala gainditzen dugu.

Araba da alde horretatik, Euskal lurraldeen artean hiria eta landaren arteko desorekarik argiena duena (biztanleen %75,1 hiriburuan bizi da, lurraldearen %8,5ean, Trebiñu aintzat hartuta). Lurralde monozentrikoaren adibidetzat har daiteke Araba. Bere baitan bi lurralde egitura bizi dira. Zaharrena, lurralde polizentrikoarena, bailara eta kuadrillak bere baitan dituena. Eta berriena, lurralde monozentrikoarena, Gasteizen inguruan egituratua, eta (Espainiako 36ko gerraren ondorengo hamarkadetako egitasmo ekonomikoarekin garatua).

Arabak, beraz, orain hamarkada gutxi egituratutako lurraldearen dinamika nozitzen ari da, izan ere, orduko garapen desorekatuak (hiriburua ardatz zuen hazkunde ekonomiko, demografiko eta urbanistikoa) ari da gaur egungo lurralde desorekak eragiten. Esan daiteke ereinda daudela Araba desorekatzeko joera izango duten eragile nagusiak.

Ikuspegia eta baliabideak beharko dira egoera iraultzeko. Edonola ere, Arabako egoerak konplexutasun handi bat du bere baitan itzaropenerako aukera ere ematen duena. Araba Europako, penintsula iberiarraren eta Euskal Herriko ardatz ekonomiko eta funtzional nagusiekin lotuta dago. Kokapen honek hainbat eskualderi jarduera ekonomiko berritzaile zein estrategikoen eremuan (elikagaiak, osasuna, energia berriztagarriak ...) kokatzeko aukera ematen die eta bere dibertsitate produktiboa lantzekoa. Halaber, ongizatearekin lotzen diren egituretatik hurbil ere badago. Galdera, beraz, horren baitan dago. Lurralde eredu monozentrikoa indartzen duten urratsak sustatu ala lurralde polizentrikoa garatzeko kuadrilla bakoitzaren aukerak indartu eta sustatu, iraunkortasun paradigma integral baten bidetik?

Jasangarritasuna helburu duten estrategia guztien aldetik landa eremuari eginkizun estrategikoa aitortzen bazaio ere, Europako Batasunean aplikatu diren nekazaritza politikek ez dute balio izan zonalde horietan biztanleria eta aktibitatea errotzeko. Halaxe aitortzen du Europako Batasunak berak nekazaritza politikari buruzko liburu berdean (1985). Beraz, bide berriak egokitu behar dira inertiak apurtu eta lurraldean pertsonak zein jarduerak errotuz eredu iraunkor batean biziberritzeko.

Lan honen xedea Arabako kuadrillen argazki sozioekonomikoa egitea da. Argazki horretan, ordea, arreta berezia jarri nahi izan dugu lurralde eremu hauetako bakoitzak iraunkortasun estrategia bat garatzeko dituen parametroen neurketa eta konparaketan. Hau da, zein dira kuadrilla bakoitzaren ezaugarriak? Ezaugarri horiek zer diote kuadrilla horrek izan dezakeen bilakaeraz? Azken batean, non dauden kuadrilla bakoitzaren indarguneak, non ahuleziak?

Horrela azterlan honek lau kapitulu nagusi ditu: lurralde egitura eta mugikortasuna; jarduera eta egitura ekonomikoa; kohesio soziala eta metabolismo demografikoa. Atal horien baitan arreta berezia jarri dugu egiturako auzi jakinetan, hala nola, mugikortasuna, ekipamenduak, jarduera ekonomikoak, biztanleria

aktiboaren kualifikazioa, enplegua, herritarren errenta maila, genero desorekak enpleguan eta errentan, egitura demografikoaren ordezkapen gaitasuna ... eta abar.

Esandakoak, beraz, balio izango du Arabako kuadrilla bakoitzaren baitako xehetasun garrantzitsuak ezagutu eta etorkizunari begira bere baitan dituen aukerak ezagutzeko.



2.

**Diagnostikoaren
laburpena**



· LURRALDE EGITURA ETA MUGIKORTASUNA

- Europa eta Afrika arteko igarobide garrantzitsua bada ere, Araba hegoaldeko eta mendebaldeko kuadrillean konektibitatea ahula da

Arabaren A-1, AP-1 eta AP-68 (N-622 bidez) errepide nagusiek Gasteiz dute nodo nagusitzat eta hiriburua ongi konektatzen dute makro-eskala batean: Europa eta Afrika arteko garraio bide garrantzitsuak dira eta Euskal A.E.ko egituraketa ekonomikoaren ardatz nagusiak ere badira. Eskala txikiago batetik, bere kokapen geografikoagatik errepide sare honekiko konektibitate ona dute Gasteiz, Gorbeialdea eta Lautadako kuadrillek.

Bestelako errealitatea da Arabar Errioxa, Kanpezu eta Añanako kuadrillena. Azken honen kasua esanguratsua da, non lurraldea AP-68aren igarobide hutsa den. Trebiñuko kasuan, A-1 eta N-1ek kuadrilla mendebaldea dute igarobide, baina konektibitatea ahula da beste eremu zabalean. Errepide bidezko konektibitatea ahula da, beraz, Araba hegoaldeko eta mendebaldeko kuadrillean.

- Trenbideak ez du Arabako barne konektibitatean paper bereziki garrantzitsua

Makro-eskala ikuspegitik, Araba trenbide sarearen igarobide funtzional bat da, Arabako bi trenbideen lotura (Bilbo eta Irun) Miranda de Ebron baitago, herrialdetik oso kilometro gutxira, Zaragozarekin ere lotura duena. Mikro-escalaren ikuspuntutik, trenbide sareak ez du herrialdeko barne konektibitatean paper garrantzitsurik izan, ez behintzat Lautada eta Añanako zenbait udalerriaz harago.

- Errepide bidezko garraio publikoak Gasteiz eta gainontzeko lurraldeen arteko harreman asimetrikoa indartzen du

Errepide bidezko garraio publikoari dagokionez, kuadrilla guztiek maiztasun handiagoaz edo txikiagoaz lotura zuzena dute hiriburuarekin, nahiz eta dentsitate baxuko lurraldeen kasuan, zerbitzu publiko honen mantenua ekonomikoki defizita sortu. Garraio eskaintza honek, ordea, bi gabezi nabarmen ditu. Batetik, Kanpezu, Trebiñu eta Añanako kuadrillean garraio publikoaren estaldura ahula da. Bestetik, elkarren ondoan dauden kuadrillen arteko loturak urriak dira eta hiriburua dute igarobide, Gasteiz eta lurralde periferikoen arteko asimetria erreproduzitzen.

- Kuadrillen barne mugikortasuna eta Gasteizetik hartu-eman, arabarren mugikortasun joera nagusiak

Azkeneko mugikortasun inkestaren arabera, arabarren mugikortasunari buruz hiru ondorio nagusi azpimarratu behar dira. Lehena, kuadrillean barne mugikortasuna nagusitzen da, batez ere gaitasun endogenoa duten kuadrillean (Gasteiz, Aiara eta Arabar Errioxa). Bigarrena, kanpo joan-etorrietan bi mugikortasun patroia daude, Gasteiz ardatz nagusi bakarra duten kuadrillak (Kanpezu, Lautada, Añana eta Gorbeialdea) eta beste ardatz batzuk ere dituztenak (Bilbo Aiarako kasuan eta Logroño Arabara Errioxaren kasuan). Hirugarrena, eskala handiago baten ikuspuntutik, Euskal A.E.ko arkitektura ekonomiko eta administratiboaren ondorioz Gasteiz eta Bilbo Handiaren arteko loturak dentsitate handia dauka, eta maila apalago batean, baita Gasteiz eta Debagoienaren artekoak ere.

- Jarduera ekonomikoaren bi ardatz nagusiak Debagoiena-Armiñon eta Gasteiz-Altsasu; hirugarrena, Amurrio-Laudio

Jarduera ekonomikoak errepide sare nagusiak eskaintzen duen konektibitatearen eremuetan metatzeko joera dauka, zeresanik ez zenbait industria jarduerak duten behar logistikoaren kasuan. Hala, jarduera ekonomikoetarako azpiegituren lurralde banaketari erreparatzen badiogu, "Y" itxurako ardatz ekonomikoa dago Araban: batetik, Debagoiena-Armiñon ardatza dugu, Gasteiz bere ipar eta mendebaldetik zeharkatzen duena; bestetik, Gasteiz-Altsasu ardatzean bigarren lerro ekonomiko garrantzitsua kokatzen da. Baina Araban bada hirugarren ardatz ekonomiko bat, Audio eta Amurrio artekoa, nagusiki Bilbo Handiaren eraginpean gorpuztutakoa. Nekazaritzarako lurren presentzia, bestalde, handia da herrialdean Aiara eta Gorbeialdeako kuadrilletan salbu.

- Arabako ehun ekonomikoa errepide sare nagusiaren bueltan egituratu zen 1960 eta 1970 hamarkadetan

Esan daiteke, hortaz, errepide sare nagusia herrialdeko jarduera ekonomikoaren hezurdura izan dela. Hau egia izanik ere, errepide sare nagusiek ez dute derrigorrez jarduera ekonomikoak metatzeko gaitasunik: esaterako, AP-68aren konektibitateak ez du Añanako kuadrillan jarduera ekonomikoaren garapenik ekarri. AP-68 errepidearen tarte hau 1980 urtean zabaldu zen, baina ordurako Arabako ehun ekonomikoaren lurralde egiturak egungo forma hartua zuen. Harrezkero ere, ez dira lurraldea orekatzeko neurririk aintzat hartu, edo ez behintzat neurri eraginkorrik.

Beste era batera esanda, neurri handi batean orain arte indarrean egon den jarduera ekonomikoaren lurralde antolamendua 1960 eta 1970 hamarkadetan ezarri zen, garaiko industria jarduerak behar zuten oinarri logistikoari erantzunez. Hau hala izanik ere, egokia da galdegitea ea bestelako jarduera ekonomikoaren garapena (logistikoak alde batera) lurralde antolamendu horren arabera gorpuztea ote den aukera bakarra, garaiko industria ehuna maila batean desegiten ari den honetan. Araban bertan bada bestelako eredurik, berezitasunak aparte, Arabar Errioxako jarduera ekonomikoetarako lurraren banaketa orekatuagoa baita.

- Araba hegoaldean oinarrizko zerbitzuen gertutasuna apalagoa da, eta gutxi dira erabilera iraunkorreko etxebizitzak

Hirigintzaren egungo errealitateak aipaturiko lurralde egiturako elementuekin harreman zuzena dauka, eta horrela, erabilera iraunkorra duten etxebizitzaren proportzioa errepide sare nagusiaren presentziaren arabera da. Zentzu horretan, Araba hegoaldean etxebizitza hauen kopurua urriagoa da. Etxebizitza parkearen optimizazio handiena Gasteizen eta Aiaran ematen da; txikiena, aldiz, Trebiñun eta Kanpezun. Arabako famili etxebizitza nagusien %75,8a Gasteizko kuadrillan kokatzen da¹. Hain zuzen ere, azken hamarkadako hirigintza jarduera medio, Gasteizen eta Lautadan dago antzinatean txikieneko etxebizitza parkea.

Oinarrizko zerbitzu eta ekipamenduak ere Gasteizen metatzen dira, eta joera gisa, iparraldeko kuadrilletan zerbitzuen eskuragarritasuna handiagoa da hegoaldean baino (Añana, Trebiñu edo Kanpezu). Oinarrizko zerbitzu eta ekipamendu gehienak Gasteizen kontzentratzen dira eta geografikoki errepide sare nagusiaren ondoan dauden udalerrietan kokatzeko joera dute.

¹ 2016 urtea; EUSTAT eta INE. Trebiñuko datuak 2011 urteari dagokio.

· JARDUERA ETA EGITURA EKONOMIKOA

- Arabako lurralde desoreka ekonomikoak, zaharrak berri

Azken datuen arabera, Arabako Barne Produktu Gordinaren %71,8a Gasteizen sortzen da, eta Aiarako kuadrillan, beste %11a. Gainontzeko kuadrilla bakoitzak herrialdeko BPGren %5a edo gutxiago bereganatzen du. Datuek argazki hau ahalbidetzen dutenetik ez da antzematen lurralde desoreka honetan sakoneko aldaketarik², eta pentsatzekoa da 1970 hamarkadaren amaierarako oinarri horiek finkatuta zeudela, herrialdearen industrializazioa burutu eta gero.

Garraio azpiegiturek lurraldearen egituraketa ekonomikoan berebiziko garrantzia dute. Hain zuzen ere horregatik, maila handi batean, herrialdeko ondasun ekonomikoen sorrera Gasteiz nodo nagusitzat duen garraio ardatzen inguruan metatzen da. Batik bat, Europa eta Afrika arteko korridorearen zenbait eremuetan. Ardatz honetan eragina izan du 2009 urteaz geroztik garraioari loturiko logistikaren aldeko apustuak, Araban "Y" itxura hartzen duen ardatz horretan.

- Garraibide nagusietan igarobide izateak ez du jarduera ekonomiko indartsua bermatzen

Nolanahi ere, garraibide nagusiekiko gertutasunak ez du ondasun ekonomikoen sorrera indartsurik bermatzen, kuadrilla guztietan eta garraibide hauetatik gertu kokatzen baitira BPG per capita ahula duten udalerriak. Hau da, garraio azpiegiturretan badira joan-etorriko eremuak baino ez diren lurraldeak.

Ehun ekonomikoari dagokionez ere, azpimarratzekoa da *per capita*ko ehunaren dentsitate handiena ez dela garraibide nagusien inguruan metatzen. Izan ere, ehun ekonomikoaren dentsitate handiena Arabar Errioxan eta Kanpezuko kuadrilletan dago. Zentzu honetan, aipatu beharra dago Trebiñuko ehun ekonomikoaren dentsitate txikiak, non biztanleria urritasuna handia den, aintzat hartzeko ahuldade egoera adierazten duela.

- Industrian espezializaturiko ehun ekonomikoak per capita-ko ondasunen oparotasuna dakar

Azken mende erdian manufaktura-industria izan da Arabako jarduera ekonomikoa dinamizatu duen aktibitate nagusia, eta gaur egun, industriak modu zuzenean herrialdeko balio erantsiaren %32a sorrarazten du³. Esaterako, Euskal A.E.n proportzio hori %24koa da, eta Europar Batasunean, %19,4koa⁴. 1960 eta 1970 hamarkadetan gorpuztutako nortasun industrialak, beraz, oso presente egon da egundaino. Trebiñu eta Kanpezu salbuetsiz, ekonomikoki kuadrilla gehienetan industriaren ekarpena handia izan da, eta industria sektorean espezializazio maila handia duten udalerrietan, Arabako BPG *per capita* handienak daude. Argi eta garbi, hau ez da gertatzen beste sektore ekonomikoen espezializazioarekin.

Manufaktura-industriaren alorrean Arabar Errioxako ehunaren espezializazio maila bereziki handia da, ardogintzaren bueltan industria-ardatz garrantzitsua baitago. Beste maila batean, industria adarrean espezializazioa garrantzitsua da Gorbeialdean, Aiaran eta Añanan. Edozein kasutan, eta espezializazioa alde batera utzita, Gasteiz da herrialdeko industria zein gainontzeko jarduera

² 1996-2012 epealdia; EUSTAT. Trebiñurako daturik ez dago, eta beraz, ez da aintzat hartu herrialdeko argazkian.

³ 2015 urtea; EUSTAT. Aurreikusitako datua.

⁴ 2015 urtea; EUROSTAT.

guztietan metaketa eremu nagusia. Zehazki, zerbitzuen ardatz nagusia da Gasteiz, eta, zeresanik ez zerbitzu espezializatuei dagokionean.

- Añana, Kanpezu, Lautada eta Arabar Errioxako kuadrillen eremu gehientsuena, lehen sektorean espezializatuak

Jarduera ekonomikoen espezializazioari dagokionez, nabarmendu beharra dago Arabako zenbait eremuetan lehen sektorearen presentzia garrantzitsua dela. Ondasun ekonomikoen sorreran lehen sektorea bereziki indartsua da Kanpezun, kuadrillako balio erantsiaren %9,9a sortuz. Baina Arabako ehun ekonomikoak lehen sektorean espezializazio maila garrantzitsua du lau eremutan: Añana, Kanpezu, Lautada eta Arabar Errioxako kuadrillen eremu gehientsuenean. Edonola ere, lehen sektorean ehun ekonomikoaren espezializazio maila handia duten udalerriek Arabako BPG *per capita* apalenak dituzte. Hots, ondasun ekonomikoa sortzeko gaitasunaren ikuspegi hutsetik, agerizkoak dira lehen sektorearen mugak. Lehen sektoreko errealitate gogorrak, hortaz, inpaktu nabarmena du Arabako zenbait eremutan.

- I+Gra bideratutako gastu apala, bereziki Añana eta Kanpezun

Araba mailan Ikerketa eta Garapenera bideratutako gastua (BPGren %1,47⁵) Euskal A.E.koaren (%1,87) eta Europar Batasunakoaren (%2,03) oso azpitik kokatzen da. Herrialdean berrikuntzara bideratutako gastuaren %86,6a Gasteiz eta Lautadako kuadrilletan exekutitzen denez, gainontzeko kuadrilletan I+Gra bideratzen den BPGren proportzioa oso ahula da. Añanan, Kanpezun, Arabar Errioxan eta Aiaran I+Gra bideratutako gastua ez da BPGren %1era ere iristen, eta bereziki ahula da Añana (%0,28) eta Kanpezuko (%0,35) kuadrilletan. Daturik ez dagoen arren, aurreikusi daiteke antzeko parametroetan dagoela Trebiñuko errealitatea.

- Berrikuntza ehuna hiriburuan metatzen da, batez ere, goi-mailako teknologian oinarrituriko zerbitzuak eta ezagutza intentsiboan oinarrituriko merkatu zerbitzuak

Arabaren berrikuntza ehunaren gorputz nagusia *teknologia punta edo oso handiko zerbitzuak* osatzen dute. Horretaz gain kontuan hartzekoak dira IKT zerbitzuak eta *teknologia maila-ertain handiko enfabrikaturak*, presentzia indartsua baitute horiek ere. Lurralde ikuspegitik, adar guztietako berrikuntza ehuna hiriburuan metatzen da modu nabarmenean, nahiz eta *teknologia-maila ertain-handiko enfabrikaturaren* deszentralizazioa beste sektoreena baino handiagoa izan. Horrela, kuadrilla mailan ehun berritzailearen presentzia handiena Gasteizen ematen da, eta aldiz, bereziki ahula da Kanpezun eta Arabar Errioxan. Udalerrri mailan, indartsua da Legutio, Agurain, Lantaron, Erribera Beitia, Zuia, Oion eta Okondon ehun ekonomiko honen presentzia.

- Krisi ekonomikoak Gasteiz eta gainontzeko lurraldeen arteko asimetria indartu du

Laster hamar urte beteko dira nazioarteko gorabehera ekonomikoek Arabako egitura ekonomikoan sakoneko eraldaketak eragin zituenetik. Ezagunak dira urte hauetan ikuspegi makroekonomikotik nozitutako aldaketa nagusiak (higiezinen burbuilaren amaiera, 1960-70 hamarkadetako industria ereduari eusteko zailtasunak, ...), baina lurralde ikuspegitik, nabarmendu beharra dago 2008/2012 epealdian Arabako bost udalerritik lautantza pertsonako BPGa apaldu egin dela. Epealdi horretan, Añana da bere BPG gordina handitu duen Arabako kuadrilla bakarra. Aldaketa horien ondorioz, Arabako ondasun ekonomikoen sorreran Gasteizko kuadrillaren pisua handiagoa da 2012 urtean krisi hasieran baino.

⁵ 2015 urtea; EUSTAT.

Bitxia izan ala ez, Gasteizen ondasun ekonomikoen sorrera proportzionalki beste kuadrilletan baino gehiago uzkurto arren, 2008/2012 zein 2008/2016 epealdian establezimendu kopuruak gora egin du kuadrilla gehienetan, Gasteiz eta Aiara salbu. Honek badu azalpenik: 2008 urteaz geroztik mikroenpresa ugari sortu dira, batez ere Kanpezu, Añana eta Arabar Errioxan. Baina herrialde mailako ikuspegitik inpaktu mugatua dute ondasun ekonomikoen sorreran. Bitarte honetan, enpresa ertain ugari desagertu dira geografia osoan, Gorbeialdean, Aiara, Añanan edo Gasteizen modu esanguratsuegan. Enpresa ertainak izan baitira krisialdi ekonomikoan ehun kolpatuena.

- Industria sektorean enpresen %18a eta enpleguaren %20a galdu arren, negozio bolumena berreskuratu da

Industria adarraren eraldaketa izan da azken hamarkadan nabarmendu den faktore nagusietako bat. Krisi hasierako gainbehera gogorra eta gero, herrialde mailan industriak negozio bolumena berreskuratu du eta 2008 urtetik manufaktura-industriaren esportazioak %22,3 hazi egin dira⁶. Automozioak paper garrantzitsua izan du esportazio bolumen horren gorakadan, eta bitartean, tradizio handiko beste zenbait industria adarretan, nagusiki metalurgian, papergintzan, ehungintzan eta altzairugintzan, zailtasunak mantentzen dira.

Industriako negozio bolumenaren berreskurapenak ez du tamainako enpleguaren berreskurapena eragin, eta 2015 urtean, krisi hasieran baino 9.300 enplegu gutxiago daude⁷. Beste era batera esanda, 2008/2015 epealdian Arabako industria enpleguaren %20a galdu da. Antzerakoa izan da herrialdean industria adarreko establezimenduen uzkurteza, gogorragoa Arabar Errioxan, Lautadan eta Kanpezun. Azken bi kuadrilla hauetan, horrek 2008/2012 epean industriako balio erantsia beste inon baino gehiago gutxitzea eragin du.

- Zerbitzu ehunaren gutxitze orokorra ez da Arabar Errioxan eta Añanan gertatu, eta Arabako lehen sektoreko ehuna, handitu egin da

2008/2012 epealdian ondasun ekonomikoen sorreran industria eta eraikuntzaren gainbeherak kuadrilla guztietan zerbitzu sektorearen garrantzia handitu du. Zerbitzuen sektorearen indartze horretan garrantzitsuak izan dira, besteak beste, merkataritza, higiezinaren jarduerak, herri administrazioa, garraio materiala edota aholkularitzak eta jarduera teknikoak⁸. Nolanahi ere, 2008/2016 epealdian zerbitzuen sektoreko establezimendu kopurua apaldu da Araban eta soilik Arabar Errioxa eta Añanako kuadrillek handitu dute bere ehuna.

Esan beharra dago lehen sektoreak krisi ekonomikoan erresilientzia handiagoa erakutsi duela, baina zailtasun propioek aspalditik kolpatutako sektorea da. 2008/2012 epealdian soilik Arabar Errioxako balio erantsian galdu du pisua, eta 2012 urteaz geroztik, lehen sektoreko establezimenduak ugartu egin dira geografia gehientsuenean. Aiara kuadrilla da salbuespena.

- Berrikuntza gastua gero eta establezimendu gutxiagotan metatzen da

Krisialdi ekonomikoak ondorio nabarmenak eragin ditu berrikuntzara bideratutako diru funtsetan: 2015 urteko inbertsio bolumena 2008 urtean baino %18,5 apalagoa izan da. Berrikuntza jardueretan aritzen den ehun ekonomikoak ere uzkurte garrantzitsua pairatu du epealdi honetan, batez ere *teknologia punta edo oso handiko* zerbitzuetan eta *teknologia-maila ertain-handiko* manufakturan. Kopuru gordinetan, 2008 urtean baino 146 establezimendu berritzaile gutxiago

⁶ 2016 urtea; Espainiako Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

⁷ 2008/2015 epealdia; EUSTAT. Enplegu bolumena dedikazio osoko baliokidetzan.

⁸ 2008/2015 epealdia; EUSTAT. Kontu ekonomikoak.

daude egun, gehientsuenak hiriburuan. Berrikuntza gastua gero eta establezimendu gutxiagotan metatzen da.

Ezagutza intentsiboan diharduten establezimendu kopurua ere apaldu egin da azken urte hauetan, baina ezagutza intentsiboko jarduerak berrikuntzakoek baino hobeto eutsi diote. Araban *ezagutza intentsiboan oinarrituriko merkatu zerbitzuek* presentzia garrantzitsua dute eta ehun ekonomiko horretan hamar establezimendutik bat galdu da. Bien bitartean, *ezagutza intentsiboko beste zerbitzuek* hazkunde nabarmena izan dute. Aldaketa hauek modu berezian eragin dute Gasteizen, ehun ekonomiko honen metaketa gunea den neurrian, eta 2008 urtean baino 301 establezimendu gutxiago ditu egun.

2008/2016 epealdian Araban hamar langiletik gorako 382 establezimendu desagertu dira, horietatik, 278 Gasteizen. Herrialdeko egitura ekonomikoaren gaineko aldaketa hauek Gasteizko Gamarra edo Betoño bezalako industria gunetako jarduera ekonomikoaren gutxitze garrantzitsua ekarri dute. Aiaraldean eta Gorbeialdean ere establezimendu kopuru esanguratsua desagertu da, proportzioan Gasteizen baino gehiago. Kontrara, Añana, Lautada eta Arabar Errioxaren kasuan, gaur egun 2008an baino 50 langiletik gorako establezimendu gehiago dago.

- *Gasteiz, Arabar Errioxa eta Añanak enplegu bolumen aski dute*

Arabako 53 udalerrien artean 15 udalerrik enplegu bolumen aski dute, lan mugikortasuna alde batera utzita, bertan bizi diren landun kopurua enplegatzeke moduan daude. Kuadrillen artean, Gasteiz, Arabar Errioxa eta Añanak enplegu bolumen aski dute. Herrialdean hiriburuak metatzen du eskulanaren enplegatzea, baina enplegu ikuspuntutik, Aiaraldean Bilbo Handiarekiko edo Aramaion Debagoienarekiko menpekotasuna ageri da.

- *Arabako langabezia maila handiena Arabar Errioxa, Aiara eta Gasteizen dago, baita kronifikazio zantzuak dituen langabezia ere*

2017 urteko bigarren hiruhilekoan Arabako langabezia tasa %11,6koa da⁹, Euskal A.E.n baino zertxobait handiagoa. Kuadrilla mailan azken datuek¹⁰ marrazten duten argazkian Arabar Errioxa, Aiara eta Gasteizek dute enplegu ezik handiena; bai eta langabeziaren kronifikazio zantzu handienak ere. Langabeziaren fenomenoak hiriburuetan metatu ohi da, eta Araban ere, hala gertatzen da. Edonola ere, herrialdeko eremu periferikoetan, hegoaldean gehienbat, langabeziaren eragina nabarmena da.

Azken urteotan enplegu ezak edo kalitate eskaseko enpleguak ez-aktibotasun egoera sustatu du, eta baliteke horren erakusle izatea Arabako geografian langabezia eta ez-aktibotasun mailaren arteko harremana. Langabezia bezala, lan adineko herritarren artean ez-aktibotasun maila handiena Arabar Errioxa eta Aiarako kuadrilletan metatzen da. Dena den, aipatu beharra dago Europar Batasuneko ez-aktibotasun maila nabarmen handiagoa dela adin horretako biztanlerian¹¹.

⁹ 2017ko 2. hiruhilekoa; EUSTAT. Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta.

¹⁰ 2015 urtea; EUSTAT. Biztanleria aktiboari buruzko udal inkesta.

¹¹ 16 eta 64 urte bitarteko biztanleria.

- Arabako hegoaldean kualifikazio handiko enplegatu gutxi daude eta azken urteotako kontratazioak egoera okertu du

Kualifikazio handiko enplegua duen biztanleria proportzio handiena Gorbeialdeako kuadrillan kokatzen da¹²; bertan baitago, hain zuzen ere, lan errenta (eta errenta erabilgarri) handiena. Oro har Arabako hegoaldean, Trebiñun, Arabar Errioxan eta Kanpezuko kuadrilletan, kualifikazio handiko enplegatu gutxi bizi dira. Gainera, oinarritzko lanbideek pisu oso handia hartu dute azken lau urteotan Arabako kontratazio bolumenean, batez ere Arabar Errioxan.

Lan merkatuko kontratazio bolumenari dagokionez aipatu beharra dago 2012/2016 epealdian kontratazio mugagabeak, lurralde hedadura murrizta izan dutela. Izan ere, maila batean Gorbeialdean eta Gasteizen metatu dira eta Arabar Errioxan, Lautadan edo Aiaran presentzia eskasa izan dute. Genero ikuspegitik, diferentzia txikia izan arren, emakumezkoek gizonezkoek baino aukera zertxobait handixeagoa izan dute kontratazio mugagabe bat lortzeko.

- Gorbeialdea eta Gasteiz dira kontratazioari dagokionez portaera desiragarriena duten kuadrillak; Arabar Errioxa eta Lautada beste muturrean dira

Lurraldean kontratazio mugagabearen kopuru handia emakumezkoen eta gazteen kontratazio mugagabe handiarekin bat dator. Halaber, gazteen kontratazio mugagabearen presentziak harremana dauka guztizko kontratazio mugagabearen presentzia indartsuarekin. Nahiz eta, gogoan izan behar den, 2012/2016 epealdian 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean kontratazio mugagabea oso urria izan zela ia geografia osoan. Zentzu honetan, Gorbeialdea eta Gasteiz dira kontratazioari dagokionez zantzu positiboena dituzten kuadrillak. Egoera kaxkarragoa da Arabar Errioxan eta Lautadan.

· KOHESIO SOZIALA

- Gorbeialdekoa da Arabako batz besteko errenta handiena, nahiz eta joeraz landa-eremuan apalagoa izan

Azken urteotako testuinguru ekonomikoaren gorabeherek maila sozialean ondorioak eragin dituzte, eta besteak beste, 2009/2014 epealdian Arabako herritarren batz besteko erosahalmena 3,2 puntu murriztu egin da. Lurralde ikuspegitik, ordea, bi elementu azpimarratu behar dira. Batetik, herrialdeko geografiaren arabera herritarren batz besteko erosahalmena desberdina da. Hala, Arabako batz besteko errenta handiena Gorbeialdean kokatzen da, eta txikiena, Arabar Errioxan. Bi kuadrilla hauen artean kokatzen dira gainontzeko kuadrillen errenta maila¹³, landa-eremuak errenta apalagoa izateko joera dutelarik (Añana eta Kanpezu).

Bestetik, azken urteotako herritarren erosahalmenaren uzkuertzea desberdina izan da kuadrilla batetik bestera. Añanako batz besteko errentak izan du jaitsiera handiena, eta Lautada eta

¹² 2011 urtea; EUSTAT eta INE. Biztanleria eta Etxebizitza Zentsua.

¹³ Trebiñurako daturik gabe.

Gasteizko kuadrillean ere, jaitsiera oso nabarmena da. Ordea, Aiara da 2009/2014 epealdian bere errenta mailari eutsi dion kuadrilla bakarra.

- *Errenta oreka handiagoa landa-eremuan urbanoan baino, baina ez Araba hegoaldeko landa-eremuan*

Herritarren errentari erreparatzerakoan kuadrillen barne desorekei so egin beharra dago ere. Zentzu horretan, joera gisa herritarren arteko oreka sozioekonomikoa handiagoa da landa-eremuan eremu urbanoetan baino. Joera horretan salbuespena litzateke Arabar Errioxa, non errenta desoreka garrantzitsuak daude. Edonola ere, Arabar Errioxan bezala, joeraz Arabako hegoaldeko landa-eremuan herritarren arteko oreka sozioekonomikoa ahulagoa da oro har.

- *Gorbeialdea eta Gasteiz giza kapital kualifikatuena barnebiltzen dute; elebitasuna indartzen*

Aldagai sozioekonomikoen eragin nabarmena dute oraindik ere herritarren formazioan. Ildo horretan, ez da harritzekoa herritarren formazio-maila handiena Gorbeialdeako kuadrillan kokatzea, eta giza kapital kualifikatuaren erakarpenaz indarturik, ostean Gasteizen. Aldiz, Arabar Errioxan eta Kanpezun gutxienez bigarren mailako ikasketak burutu dituztenen presentzia ahulagoa da.

Hizkuntz normalizazioari dagokionez, egun Arabako herritarren %41,6a euskara menperatzen du maila batean edo bestean, *euskaldunberriak* nagusituz. Geografikoki, *euskaldunberrien* proportzio handiena Aiaran eta Lautadan kokatzen da. *Euskaldunzaharren* proportzio handiena, aldiz, Gorbeialdean kokatzen da. *Erdaldunzaharrek*, ostera, presentzia oso handia dute Kanpezun, Arabar Errioxan eta Añanan. Euskararen kale erabileraren azken neurketek¹⁴ baieztatu dute, bere apaltasunetik, Araban euskarak gero eta presentzia handiagoa duela. Argazki orokorraz harago, arreta berezia eskaini behar zaio euskara indarra duen geografiari, Aramaion gertatu bezala, hirigintza eta barne migrazioen ondorioz euskarak presentzia galtzen ari baita bere gotorleketan.

- *Etorkinen komunitate berriak, Gasteiz eta Arabar Errioxan metatuta*

Egungo arabarren %10,4a Espainiar estatutik kanpo jaioa da (34.007 pertsona). Ez da proportzio txikia baina kopurua bere neurrian jartzeko, oraindik gehiago dira Gaztela eta Leonen jaiotako arabarrak (60 eta 70. hamarkadetan bertaratutakoak, gehientsuenak) atzerrian jaiotako egungo etorkin multzoa baino. Arabako etorkinen artean jatorri aniztasuna handia da, ez dute *corpus* bakarra osatzen eta komunitate zaurgarriak diren heinean, behar sozioekonomiko eta bertakotzeko zailtasun desberdinei egokituriko interbentzio publikorako estrategia desberdinak behar dira.

Arabako etorkinen komunitateetan Maroko eta Kolonbia dira jatorri nagusiak, eta beste maila batean Aljeria, Pakistan, Errumania, Ekuador edo Portugal. Gasteiz eta Arabar Errioxa etorkinen metaketa gune nagusiak dira, lan aukera anitzenak hiriburuak metatzen dituelako eta Arabar Errioxan ardogintzari loturiko eskulan eskari garrantzitsua dagoelako.

Etorkinen komunitateak ez dira geografikoki modu berean banatzen, eta ondorioz, jatorrizko komunitateen babesak berezko geografia dauka. Zentzu horretan, aipatu beharra dago Marokon jaiotako etorkinak bereziki presentzia handia dutela Arabar Errioxan eta Lautadan, eta Kolonbian jaiotako etorkinen metaketa, aldiz, hiriburuan ematen dela. Aljerian jaiotakoak, ordea, Lautadan, Gasteiz eta Aiaran metatzen dira. Portugalen jaiotakoen presentzia Araban oso garrantzitsua ez

¹⁴ 2016 urtea; Soziolinguistika Klusterra. Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa.

bada ere, geografikoki oso zonifikatuta daude Trebiñun eta Arabar Errioxan. Genero ikuspegitik, azpimarratzekoa da komunitate pakistandarraren maskulinizazio maila handia (%76) eta Amerikatik datozen komunitate gehientsuenen feminizazioa.

- Emakumezko ez-aktiboak ugariagoak nortasun industrialeko eremuetan eta urbanoetan; industriak errentaren gaineko genero desoreka handitzen du

Genero ikuspegiarekin jarraituz, lehenik esan beharra dago lan esparruan ez-aktibotasun egoeraren feminizazio joera orokorra¹⁵ nabarmenagoa dela nortasun industrial handiko eremuetan (Aiara) eta urbanoetan (Gasteiz). Bigarrenik, errentaren gaineko genero desoreka handitzen da kuadrillako enplegu bolumenak industriarekin lotura handia duenean, eta Araban, desoreka hauek bereziki indarra dute Aiaran, Añanan eta Lautadan.

- Elkartegintza trinkotasun handia Kanpezuko kuadrillan

Arabako elkartegintza ehunean hamarretik sei izaera kulturalako elkarteak dira. Garrantzi apalagoa du sozio-ekonomiari loturiko elkarten kopuruak. Azpimarratzekoa da Kanpezuko kuadrillan elkartegintza dentsitatea oso handia dela gainontzeko herrialdearekin alderatuta. Urrun kokatzen dira Lautada, Gorbeialdea, Arabar Errioxa edo Añana, non elkartegintza ehun garrantzitsua dagoen ere.

- Ekintzailetasun ekonomikoa, halabeharrez, Trebiñun eta Kanpezun bizi eta lan egiteko ohiko hautua

Ekintzailetasunari dagokionez, aipatu beharra dago autonomoen presentzia handia izan ohi dela landa-eremuan, nukleo urbano handietako aukera aniztasunaren faltan, ekintzailetasuna bertan lan eta bizitzeko aukera bermatzeko bide eskasenetarikoa delako. Testuinguru horretan kokatu behar da bereziki Trebiñu eta Kanpezuko autonomoen proportzioa handia. Agerizkoa da Trebiñuko jarduera ekonomikoan autonomoen presentzia funtsezkoa dela, eta aipatutakoaren ildoan, proportzioa hain handia da, lurralde zaugarri baten zantzuak dituela. Baina autonomoen bidea urratzea ez da erraza azken hamarkadan eta kopuruan nabarmen gutxitu egin dira, bereziki Trebiñun eta Kanpezun.

· METABOLISMO DEMOGRAFIKOA

- 1960 eta 1970 hamarkadak, egungo egitura demografikoaren hezurduraren giltzarri

1960 eta 1970 hamarkadetan Arabak historian izan duen hazkunde demografiko handiena izan zuen: 1960 urtean 142.400 herritar zituen eta, bi hamarkada ostean, 262.400. Hain zuzen ere, egungo metabolismo demografikoa ezaugarritzen duten hiru ardatz nagusienak orduan osatu ziren, horregatik garrantzitsua da aro horri une batez erreparatzea.

Lehena, Espainiar estatuko etorkinen etorrerak garaiko egitura demografikoa nabarmen gaztetu zuen denbora gutxian. Garaiko lan-eskuaren beharrak lanerako adinean zegoen biztanleria

¹⁵ Araban 30-59 urte bitarteko ez-aktiboak %67,5a emakumezkoak dira. 2015 urtea; EUSTAT.

erakarri zuen, eta gaur egun, belaunaldi horiek, adineko herritarrak dira (>65 urte) edo horren atarian daude.

Bigarrena, urritasun ekonomiko luzearen osteko hazkunde ekonomikoak ugalkortasun aro oparo baten sorrera ekarri zuen. Honek garaiko hazkunde demografikoa indartu zuen eta *baby boom* delako fenomenoari bide eman zion. Horiek dira egungo egitura demografikoan belaunaldi garrantzitsuenak.

Hirugarrena, egitura ekonomikoaren garapenak Gasteiz izan zuen lurralde-ardatz nagusia, eta neurri apalago batean Aiarako kuadrillan. Horrela, demografikoki ordu arte ezezaguna zen lurralde asimetriak itxura hartu zuen: 1960/80 epealdian, Gasteiz 73.700 biztanle izatetik 192.800 izatera pasa zen, eta orduetik, herrialdeko biztanleriaren hiru laurdenak hiriburuan metatzen dira. Epealdi berean, Aiarako kuadrillak ere bere biztanleria bikoiztu zuen. Bitartean, landa-eremuko kuadrilletan biztanleria galera garrantzitsua eman zen, batez ere, Trebiñun, Arabar Errioxan eta Añanan.

- *Herrialdeak dinamismo demografiko indartsua dauka eta etorkizun iraunkorragoa izateko zumeak*

1980 hamarkadaz geroztik, eta nahiz eta modu apalagoan izan, Arabako biztanleria handituz joan da. Hau ez da Euskal A.E.n gertatzen, Araban, 1975/83ko ekonomia krisiarekin batera jaiotzen gainbehera handia nozitzen bada ere, herritar kopurua hazkunde positiboan mantentzen baita. Denboran gertuago, milurtekoaren hasierak ufada demografiko eraberritua dakar Arabara. Aurretik indartzen ari den ugalkortasuna indarberritzen da eta Espainiar estatutik kanpo jaiotako migrazio fluxu berriak ageri dira, egitura demografikoaren biziberritzean lagungarria dena.

Egungo ekonomia krisi hasierarekin dinamismo demografiko honen azken arnasak agertzen hasten dira, ez Bizkaian edo Gipuzkoan bezainbeste, baina indarrez Arabako landa-eremuan, nabarmenki Trebiñu eta Kanpezuko kuadrilletan. Oro har, Euskal A.E. aro demografiko berri baten aldaketa fasean murgilduta dago, hurrengo hamarkadan biztanleria galerari bide emango diona. Baina Arabak bere biztanleria bolumenari eutsi eta modu iraunkorragoan handitzeko orubea izan dezake. Hala izanik ere, etorkizunari begira badira zenbait erronka herrialdearen iraunkortasun demografikoan.

- *Herrialde mailan etorkizuneko erronka nabarmenak daude*

Egun herrialdearen belaunaldi egitura orokorra ez da behar lukeen bezain orekatua, nagusiki aipaturiko 1960 eta 70 hamarkadek sorrarazitako belaunaldi desoreka medio. Horrela, egun Araban bost herritarreko adineko bat dago (%19,8)¹⁶, eta datorren hamarkadan, zahartze tasa indarrez handitzea espero da. Bestetik, 35 eta 49 urte bitarteko belaunaldiak dira bolumenean garrantzitsuenak herrialdean. Belaunaldi hauen presentzia biztanleriaren zahartzea arinduko du epe motz eta ertainera, baina epe luzeko perspektibatik Arabak ataka garrantzitsua du belaunaldien ordezkapenean. Agerizko erronka nagusietako bat, lan adineko biztanleriaren ordezkapen traketsa arintzea.

- *Lurralde polarizazioaren ondorioz metabolismo demografiko ahula Trebiñun, Kanpezun eta Añanan*

2012 urteaz geroztik, herrialde mailako biztanleriaren hazkunde positiboa hiriburuari esker gertatu da. Areago, Arabako lau udalerritik hiruk biztanleria galdu dute, bai eta kuadrilla gehienek ere,

¹⁶ Orotara, 64.657 dira Araban erroldaturiko adineko herritarrak. 2016 urtea; EUSTAT eta INE. Udal errolda.

Trebiñu (-%8,6) eta Kanpezu (-%7,1) buru, biztanleria bolumen garrantzitsua galdu dute. Abaguneari loturiko joera hutsa izatetik harago, aipaturiko kuadrilla hauetan bizigarritasun arazo bat dagoela pentsatzeko arrazoi sendoak daude. Ez dira bakarrak, Añanako kuadrillan ere bizigarritasuna ahula baita. Diagnostiko honetarako elementu desberdinak daude.

- Landa eremu orokorrean lan adineko emakumezkoen falta, eta egoera kaskarreneko landa eremuan gazteen gabezia

Batetik, Araban gazteen presentzia ez da bereziki handia (%13,1) aipaturiko herrialdearen bilakaera demografiko orokorragatik. Ezaugarri hori alde batera, lurralde ikuspegitik gazteen presentzia ahula da Trebiñu eta Kanpezuko kuadrilletan, non gazteak (15-29 urte) biztanleriaren %10a izatera ez diren heltzen. Añanan ere, gazteen presentzia nahiko ahula da, baina zertxobait indartsuagoa (%11,3).

Bestetik, lan adineko¹⁷ biztanlerian emakumezkoen presentzia oro har ahula da Arabako landa-eremuan, bereziki Trebiñun (%41,2), Kanpezun (%41,8) eta Añanan (%44,6). Bien bitartean, hiriburuan beste inon baino emakume gehiago daude (%50,3). Gazteen gabezia eragiteko bi faktore posible daude: lehena, belaunaldi gazteak sortzeko gurasoen-belaunaldi urria egon izana; bigarrena, gazteak alde egin izana. Emakumezkoen gabezia, ordea, exodoak eragin du ezinbestean.

- 2012az geroztik exodo handia Trebiñun eta Kanpezuko kuadrilletan, adinekoena gehienbat

Ez dago exodo joera eta belaunaldi ordezkapen kaxkarraren konposaketa modu historikoan kuantifikatzerik egungo errealitatea behar bezala ulertzeko. Baina azken urteotako migrazio joerak lagungarriak dira bizigarritasunaren gaineko lurralde desorekak ulertzeko. Ildo horretan, Gasteiz eta Trebiñuko kuadrillek migrazio joeren lurralde polarizazioaren bi muturrak ordezkatzeko dituzte: 2012/16 epealdian kuadrilla gehienetan migrazioen ondorioz biztanleria galdu da, eta herrialdean, huste joera horren adibide lazgarriena Trebiñuk ordezkatzeko du. Bitartean, Gasteiz saldo positibo garbia izan duen kuadrilla bakarra da.

Aipatu bezala, 2012az geroztik Trebiñuk galdu du biztanleria proportzio handiena, nagusiki erroldaturiko biztanleriaren %8,7ak alde egin duelako. Biztanleria galera apalagoa baina kontuan hartzekoa izan da ere Kanpezun (-%4,7). Kuadrilla bietan, 35-64 urte bitarteko, eta batez ere, adineko biztanleriak alde egin du, emakumezkoak gizonetakoak baino gehiago. Kasu honetan, Añanak ez du biztanleriaren ihesirik pairatu, ez behintzat azken lau urtetan, nahiz eta Trebiñu bezala, biztanleriaren erroldan alta eta baja ugari erregistratu.

- Trebiñuko egitura demografiko errakitikoa, etengabeko exodoaren ondare

Kuadrilla guztietan ageri diren herrialde mailako erronka partekatu horiek alde batera utzita, oso kezagarria da Trebiñuk duen belaunaldi oreka. Kuadrilla honetan, zahartze tasa oso apala bada adinekoek bertatik alde egiteko duten joeraren ondorioa da. Kanpezun eta Añanan ezin daiteke esan zahartze tasa apala denik, baina adinekoen artean emigratzeko joeratik ez balitz herritarren zahartzea handiago zatekeen¹⁸. Hipotesi moduan, pentsa daiteke zerbitzuen eskuragarritasun eskasa edo mugatu batek artikulatzen dituela halako migrazioak, justuki Gorbeialdean eta Gasteizen gertatzen denaren kontrakoa.

¹⁷ 15-64 urte bitarteko biztanleria.

¹⁸ 2006/16 epealdian, herrialdeko joera orokorraren kontra, zahartze tasa apaltzen da Añana, Trebiñu, Kanpezu, Arabar Errioxa eta Lautadako udalerrri askotan, balizko hilkortasun joeraren gainetik.

Modu batean ala bestean, Araba osoan 35-49 urte bitartekoak herritarren %25a badira, Trebiñuko kasuan biztanleriaren %36,8a osatzen dute. Honek Arabako kuadrillen artean jaiotza eta ugalkortasun tasa handiena Trebiñun kokatzea eragin du azken urteetan, momentuz jaiotza eta heriotzen arteko saldo positiboa utziz. Nolanahi ere, 35-49 urteko biztanleriaren ordezkapenerako belaunaldiak erabat desagertuta daude. Hori dela-eta, etorkizunean lan-eskuaren ordezkatzeko oso kaxkarra izango da. Herritarrak erakartzetik urrun, migrazio datuek exodo handia erakusten dute adinez nagusiko belaunaldietan eta biztanleria egoiliarraren artean, beraz Trebiñuko kasuan haur eta gazteen ordezkatzeko indizeen sendotasunak errealitate hori ezkututzen du.

- Gazteak kuadrilla guztietan ugaritzeko baldintzak daude, halere, lan adineko biztanleria ordezkatzeko ezintasuna nagusi da

2012az geroztik jaiotza tasa apalagoa da Arabako kuadrilla guztietan, eta herrialdeko udalerrri kopuruaren erdiak haur kopurua ordezkatzeko zailtasunak ditu. Zentzu honetan, joeraz ahultasun handieneko udalerrriak tamaina txikikoak dira. Kuadrillen artean, ordea, egun haurren ordezkatzeko negatiboa duen kuadrilla bakarra Gorbeialdea da, Añanan bezala, ugalkortasun handieneko belaunaldien presentzia ahula delako. Gazteen belaunaldia, ordea, kuadrilla guztietan eta udalerrrien %74an indartzeko nahikotasun demografikoa dago, lurralde bakoitzak bere etorkizuneko gazteei (egun 0 eta 14 urte bitartekoak) eutsiko balie behintzat.

Nolanahi ere, kuadrilla guztiek nekez ordezkatzeko dute egungo lan eskuaren bolumena berezko indar demografikoarekin. Europar Batasunean egoera hau oso hedatua dago, eta salbuespen bat edo beste, Arabako udalerrri guztietan gertatuko den egoera bada ere, Kanpezu eta Trebiñuko kuadrillen egoerak badu larritasun berezia. Egoera honen larritasuna apalagoa da Arabar Errioxan eta Gasteizen. Arabar Errioxaren kasuan, azken urteotan bereganatutako lan adineko etorkin migrazio-fluxuei esker, eta Gasteizko kasuan, migrazio fluxu berri horietaz gain bere indar zentripetoaz baliatuz beste kuadrillen kapital demografikoaz indartzen delako.





3.

**Kuadrillen
erradiografia
laburra**

AIARA



[LURRALDE EGITURA - MUGIKORTASUN]

- Barne mugikortasun handia
- Ardatz industrial propioa
- Bilbo Handiaren eraginpean
- Erabilera iraunkorra duen etxebizitza parke sendoa
- Oinarrizko zerbitzuen eskuragarritasun egokia

[JARDUERA - EGITURA EKONOMIKOA]

- Ehun ekonomikoa industrian espezializatua
- Berrikuntzarako gastu apala
- Arabako BPGren bolumen garrantzitsua eragin
- BPG bolumenak uzkerdura handia (2008/12)
- Establezimendu kopurua gutxitu (2008/16)
- Lehen sektoreko establezimendu kopurua handitu ez duen kuadrilla bakarra (2008/16)
- Enpresa ertain eta handien kopurua gutxitu nabarmen (2008/16)
- Enplegu nahikotasun eza
- Langabezia maila handia; kronifikaziorako zantzuekin

[KOHESIO SOZIALA]

- Errenta erabilgarriari eutsi dion kuadrilla bakarra (2009/14)
- *Euskaldunberrien* presentzia handiena
- Arabako Aljeriako komunitatearen presentzia nabarmena
- Ez-aktibotasun egoeraren feminizazio maila handia
- Genero desoreka nabarmenak errentan

[METABOLISMO DEMOGRAFIKOA]

- Biztanleria galera txikia (2012/16)
- Zahartze maila handia
- Gazteen urritasuna
- Kuadrillatik alde egiteko joera txikia 16-64 urte bitarteko gizonezkoen artean
- Beste arabarrak erakartzeko gaitasun urria

AÑANA



[LURRALDE EGITURA - MUGIKETA]

- AP-68aren joan-etorrizko igarobia
- Garraio publikoaren estaldura urria
- Oinarrizko zerbitzuen eskuragarritasuna

[JARDUERA - EGITURA EKONOMIKOA]

- Ehun ekonomikoak industrian eta lehen sektorean espezializatua
- Berrikuntzarako gastu oso apala
- Ehun ekonomiko berritzailearen presentzia, batez ere, *teknologia-maila ertain-handiko manufaktura*
- Ezagutza intentsiboan diharduen ehunaren presentzia ahula
- BPG bolumena handitu (2008/12)
- BPG *per capita* handiena
- Establezimendu kopurua handitu (2008/16)
- Zerbitzuen sektoreko establezimendu kopurua handitu (2008/16)

[KOHESIO SOZIALA]

- Errenta erabilgarriaren jaitziera handiena (2009/14)
- Errenta desoreka garrantzitsuak
- Genero desoreka nabarmenak errentan

[METABOLISMO DEMOGRAFIKOA]

- Metabolismo demografiko ahula
- Biztanleria galera garrantzitsua (2012/16)
- Gazteen presentzia txikia
- Emakumezkoen presentzia txikia lan adineko belaunaldietan
- Alta/baja ugari erroldan, baina mugimendu horrek eraginik ez biztanleria bolumenean
- Kuadrilatik alde egiteko joera adinekoen artean (Gasteizera?)

ARABAR ERRIOXA



[LURRALDE EGITURA - MUGIKORTASUNA]

- Konektibitate ahula
- Barne mugikortasun handia
- Logroño eta Gasteizko eraginpean
- Jarduera ekonomikoetarako lurralde banaketa orekatua
- Erabilera iraunkorra duten etxebizitzaren presentzia ahula

[JARDUERA - EGITURA EKONOMIKOA]

- Ehun ekonomikoa lehen sektorean espezializatua; balio erantsi handia sortu
- Ehun ekonomikoaren dentsitate handia *per capita*
- Berrikuntzarako gastu apala eta ehun berritzailearen presentzia ahula
- Ezagutza intentsiboan diharduen ehunaren presentzia ahula
- BPG bolumenaren uzkurdua handia (2008/12); BPG *per capita* handia
- Establezimendu berrien hazkundea (2008/16)
- Zerbitzuen sektoreko establezimendu kopurua handitu eta industriakoak murriztu (2008/16)
- Langabezia maila handia; kronifikaziorako zantzuekin
- Ez-aktibotasun maila handia
- Enplegu nahikotasuna; lan merkatu prekarioa (kualifikazio gutxiko kontratazioa, oinarrizko lanbideen presentzia handia, ...)

[KOHESIO SOZIALA]

- Errenta erabilgarri apalena
- Errenta desoreka garrantzitsuak
- Batz besteko formazio maila apalagoa
- Etorkinen metaketa eremua
- Arabako Marokoko komunitatearen presentzia nabarmena

[METABOLISMO DEMOGRAFIKOA]

- Biztanleria galera garrantzitsua (2012/16)
- Gazteen presentzia egokia; gazteak erakartzeko gaitasuna
- Laneskua ordezkatzeko gaitasun nahiko egokia

GASTEIZ



[LURRALDE EGITURA - MUGIKORTASUNA]

- Garraio publikoen nodo nagusia
- Lurralde ardatz nagusia
- Barne mugikortasun handia
- Antzintasun txikieneko etxebizitza parkea
- Oinarrizko zerbitzuen eskuragarritasun egokia

[JARDUERA - EGITURA EKONOMIKOA]

- Ondasun ekonomikoen metaketa eremua
- Ehun ekonomikoa zerbitzuetan espezializatua
- Berrikuntzarako gastuaren metaketa eremua
- Ehun berritzailearen metaketa eremua, baina 131 gutxiago (2008/16)
- Ezagutza intentsiboan diharduen ehunaren metaketa eremua, baina 301 gutxiago (2008/16)
- Establezimendu kopurua gutxitu (2008/16)
- Automozioak industria hauspotu krisialdian
- Enplegu nahikotasuna; lan merkatu anitza
- Langabezia maila handia; kronifikaziorako zantzuekin
- Arabako kontratazio mugagabea metatu

[KOHESIO SOZIALA]

- Errenta erabilgarriaren jaitsiera (2009/14)
- Batz besteko formazio maila handia
- Etorkinen metaketa eremua
- Arabako Kolonbia eta Aljeriako komunitateen presentzia nabarmena
- Ez-aktibotasun egoeraren feminizazio maila handia

[METABOLISMO DEMOGRAFIKOA]

- Arabako biztanleriaren 3/4ak metatu
- Indar zentripettoa eragin
- Biztanleria xurgatu beste kuadrillei;
- batez ere, gazteak eta emakumezkoak
- Adineko biztanleria erakarri

GORBEIAL



[LURRALDE EGITURA - MUGIKORTASUNA]

- Nekazaritzarako azalera murrizta
- Gasteizko, eta maila apalagoan, Bilboren eraginpean ere
- Garraio ardatz batek zeharkatuta, konektibitate egokia

[JARDUERA - EGITURA EKONOMIKOA]

- Ehun ekonomikoa industrian espezializatua
- BPG bolumenaren uzkurdua handiena (2008/12)
- BPG *per capita* handia
- Enpresa ertain eta handien kopurua gutxitu (2008/16)
- Enplegu nahikotasun eza
- Enplegu kualifikatua duen biztanleria ugaria
- Bataz besteko lan errenta handiena
- Arabako kontratazio mugagabea metatu

[KOHESIO SOZIALA]

- Errenta erabilgarri handiena
- Bataz besteko formazio maila handiena; hezkuntzan eta ikasketa teknikoetan espezializazio nabarmena
- *Euskaldunzaharren* presentzia handiena

[METABOLISMO DEMOGRAFIKOA]

- Adineko biztanleria erakarri
- Ugalkortasuna eragin dezaketen belaunaldien presentzia txikia (guraso izateko adinean)
- Haurren ordezkatzea oso urria

KANPEZU



[LURRALDE EGITURA - MUGIKORTASUNA]

- Konektibitate ahula
- Garraio publikoaren estaldura urria
- Erabilera iraunkorra duten etxebizitzaren presentzia ahula
- Oinarrizko zerbitzuen eskuragarritasuna desegokia

[JARDUERA - EGITURA EKONOMIKOA]

- Ehun ekonomikoaren dentsitate handia *per capita*
- Ehun ekonomikoaren lehen sektorean espezializatua
- Lehen sektoreko balio erantsi handia
- Industria ehunaren presentzia ahula, eta murriztu da (2008/16)
- Berrikuntzarako gastua oso apala
- Berrikuntza ehun ahula
- Ezagutza intentsiboan diharduen ehunaren presentzia ahula
- Establezimendu berrien hazkundea (2008/16)
- Enplegu nahikotasun eza

[KOHESIO SOZIALA]

- Batz besteko formazio maila apalagoa
- Elkartegintza ehunaren dentsitate handiena
- Autonomoen presentzia handia; kopurua murriztu (2008/16)

[METABOLISMO DEMOGRAFIKOA]

- Metabolismo demografiko ahula
- Biztanleria galera garrantzitsua (2012/16)
- Zahartze handia; gazteen presentzia txikia
- Emakumezkoen presentzia txikia lan adineko belaunaldietan
- Indar zentrifugoa eragin
- Kuadrillatik alde egiteko joera (Gasteizera?), baita adinekoen artean ere
- Lan eskutik ordezkapen oso eskasa

LAUTADA



[LURRALDE EGITURA - MUGIKORTASUNA]

- Antzinasun txikiko etxebizitza parkea
- Mugikortasun fluxu handia Lautada eta Gasteiz artean
- Garraio ardatz batek zeharkatuta, konektibitate egokia
- Nekazaritzarako azalera handia

[JARDUERA - EGITURA EKONOMIKOA]

- Ehun ekonomiko lehen sektorean espezializatua
- Lehen sektoreko balio erantsi handia
- Ehun eta jarduera ekonomiko ahula zenbait eremutan
- BPG bolumenaren uzkurdua handia (2008/12)
- Establezimendu kopuruaren hazkundera (2008/16)
- Industria ehuna murriztu (2008/16)
- Enpresa ertain eta handien kopurua handitu (2008/16)
- Enplegu nahikotasun eza
- Prekarietate zantzuak lan merkatuan

[KOHESIO SOZIALA]

- Errenta erabilgarriaren jaitsiera (2009/14)
- *Euskaldunberrien* presentzia handia
- Batz besteko formazio maila handiena
- Autonomoen presentzia handia
- Arabako Maroko eta Aljeriako komunitateen presentzia nabarmena
- Genero desoreka nabarmenak errentan

[METABOLISMO DEMOGRAFIKOA]

- Biztanleria galera apala (2012/16)
- Hazkunde natural positiboa (jaiotzak/heriotzak)
- Gazteen ordezkatzeko egokia
- Kuadrillatik alde egiteko joera txikia, batez ere, gazteen artean

TREBIÑU



[LURRALDE EGITURA - MUGIKORTA]

- Konektibitate ahula
- Garraio publikoaren estaldura urria
- Erabilera iraunkorra duten etxebizitzaren presentzia oso ahula
- Oinarritzko zerbitzuen eskuragarritasuna desegokia

[JARDUERA - EGITURA EKONOMIKOA]

- Ehun ekonomiko urria eta ahula
- Industria ehunaren presentzia ahula
- Lehen sektoreko balio erantsi handia (hipotesia)
- Berrikuntzarako gastua oso apala (hipotesia)
- Berrikuntza ehun ahula
- Ezagutza intentsiboan diharduen ehunaren presentzia ahula
- Enplegu nahikotasun eza
- Kualifikazio gabeko enplegua duen biztanleria ugaria

[KOHESIO SOZIALA]

- Batz besteko formazio maila apalagoa
- Autonomoen presentzia handia; kopurua murriztu (2008/16)

[METABOLISMO DEMOGRAFIKOA]

- Metabolismo demografiko oso ahula
- Biztanleria urritasuna
- Biztanleria galera garrantzitsua (2012/16)
- Gazteen presentzia txikia
- Emakumezkoen presentzia txikia lan adineko belaunaldietan
- Ugalkortasun maila handiena
- Indar zentrifugoaren eragin handia
- Kuadrillatik alde egiteko joera handia (Gasteizera?), adinekoen artean ere
- Belaunaldi oreka oso eskasa eta ordezkapen ahula



Lurraldeak eskala desberdinen arabera egituratzen dira eta lurraldeen dinamismoa bere baitan diren aukera eta eskaintzen ondorioa da.


Makro-eskala batetik begiratuta, kokapen geografikoa dela medio, Araba Europa eta Afrika arteko garraio nodo garrantzitsua da. Kokapen pribilegiatu horrek, beraz, herrialdeari zenbait betekizun esleitzen dizkio baita aukerak zabaldu ere.

Mikro-eskala batetik, Arabak historikoki lurralde desoreka garrantzitsuak izan ditu, batik bat frankismoak bere azken hamarkadan, garaiko ezintasun ekonomikoari erantzunez, garatu zuen lurralde antolamenduak landa-eremuaren hustea eta hiriburuaren nagusitasuna nabarmen indartu zuenetik. Perspektiba historikoa ez da ariketa hutsala, egungo hiriburua eta landa-eremuaren arteko asimetria testuinguruan jartzen lagungarria den neurrian.

Azken hamarkadetan, lantoki, zerbitzu, ekipamenduen kokagunea eta mugikortasun azpiegiturek elkarri elikatzen diren dinamikapean sortutako beharrei erantzunez diseinatu dira, logikoa denez orobat. Aro demografiko eta ekonomiko berri baten hasieran gauden honetan, une egokia da Arabako lurralde guztiek dituzten aukera eta indargune desberdinak aintzat hartu eta lurralde garapen integrala sustatzeko haziak jartzeko.

4.1. GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

4.1.1. GARRAIO AZPIEGITURAK




Gasteiz

garraio azpiegituren nodo zentrala da. Beste kuadrillen arteko lotura funtzional gehienek hiriburua dute zeharbide.

Arabako A-1, AP-1 eta AP-68 (N-622 bidez) errepide nagusiek Gasteiz dute nodo nagusia eta hiriburua ongi konektatzen dute makro-escala batean: Europa eta Afrika arteko garraiobide garrantzitsuak dira eta Euskal A.E.ko egituraketa ekonomikoaren ardatz nagusiak ere badira. Arabar Errioxa edo Kanpezuk errepide sare honekiko konektibitate ahula dute, eta are esanguratsuagoa da Añanako kuadrillan, non igarobide hutsa den.

Trenbide sareak Gasteizen du geltokia, baina Arabako bi bide nagusien lotura (Bilbo eta Irun) Miranda de Ebron dago, herrialdetik oso kilometro gutxira, Zaragozarekin ere lotura duena.

4.1.2. GARRAIO PUBLIKO SAREA




Garraio publikoaren eskaintzak Gasteiz eta lurralde periferikoen arteko asimetria erreproduzitzen du.

Arababusaren bidez kuadrilla guztiek, maiztasun handia edo txikiarekin, lotura zuzena dute hiriburuarekin. Hala ere, hainbat kasutan garraio publikoaren mantenua ez da ekonomikoki bideragarria eta diru-publikoari esker mantentzen da, nagusiki dentsitate baxuko lurraldeen konektibitatea lotzeko misioa duelako.

Eskaintza honek, ordea, hainbat gabezi ditu. Batetik, Kanpezu eta Añanako kuadrilletan garraio publikoaren estaldura urria da. Bestetik, kuadrillen arteko lotura hiriburua dute igarobide, eta horrek, lurralde asimetria indartzen du.

4.1.3. HERRITARREN MUGIKORTASUNA

HERRITARREN EGUNEROKOTASUNEZKO JOAN-ETORRIAK (%). 2011 URTEA.




Garraio azpiegitura nagusiak eta garraio publikoko sarea hiriburuan oso errotuta egon arren, herritarren desplazamendu gehienak bizitoki diren kuadrillen baitan ematen direla aditzera ematen du Euskal A.E.ko mugikortasunaren azken azterlanak (2011). Bi kuadrilla mota bereiz daitezke herritarren mugikortasuna aintzat hartuz: batetik, barne mugikortasun handiko kuadrillak (Gasteiz, Aiara eta Arabar Errioxa), eta bestetik, beste kuadrilletara desplazamendu handiak dituztenak (Kanpezu, Lautada, Añana eta Gorbeialdea), non Gasteizekiko hartu-eman garrantzitsua den.

Halaber herrialde mailan nabarmentzekoa da Gasteiz eta Lautadaren arteko mugikortasun fluxu garrantzitsua. Bi kuadrilla hauen arteko mugikortasuna ez baita ematen, esaterako, Gasteiz eta Aiara artean. Aiara, demografikoki eta ekonomikoki herrialdeko bigarren kuadrilla garrantzitsua izanik, lotura funtzional estuak ditu Bilbo Handiarekin. Hain zuzen ere, nabarmentzekoa da Gasteiz eta Bilbo Handiaren arteko loturaren mugikortasun dentsitate handia Euskal A.E.ko arkitektura ekonomiko eta administrazioak sustatua. Ez da Bilbo Handiarekiko hartu-eman estuaren zantzuak dituen kuadrilla bakarra.

Kuadrilletan
barne mugikortasuna
nagusitzen da.



Kopuru gordinetan, egunero mugikortasun fluxu garrantzitsua daude Gasteiz-Lautada (16.000 pertsona inguru) eta Gasteiz-Bilbo Handia (8.400 inguru) artean.



4.2. GIZA-JARDUERAK ETA NATURA

4.2.1. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO AZPIEGITURAK


AZALERA (Ha). 2017 URTEA.



Garraio azpiegiturek “Y” itxurako ardatz ekonomikoa eratzen dute: Debagoiena-Armiñon eta Gasteiz-Altsasu. Aiara ere bada beste lerro industrial, nagusiki Bilbora begira.

4.2.2. NEKAZARITZARAKO LURRAK

AZALERA (Ha). 2017 URTEA.




Nekazaritza lurrak garrantzitsuak dira lurraldearen konfigurazioan, Aiara eta Gorbeialdean salbu. Zerealaren nortasuna handia da herrialdeko sektorean


4.2.3. NATURA ETA EREMU BABESTUAK

AZALERA (Ha). 2017 URTEA.

	Natura 2000 sarea	Interes bereziko eremua	Biotopo eremua
Gasteiz	2.162	7.463	0
Aiara	4.599	9.733	1
Arabar Errioxa	8.975	4.663	80
Lautada	5.240	15.129	3.174
Gorbeialdea	17.800	20.317	13.203
Añana	22.350	27.874	4.854
Kanpezu	35.166	36.170	9.017
Trebiñu	652	7.283	27
ARABA	96.944	128.631	30.356



Arabak ia 97.000 ha ditu babestuta Natura 2000 sarearen barruan. Horietatik %36,3a Kanpezuko kuadrillan daude eta %23,1a, berriz, Añanako kuadrillan.




4.3. HIRIGINTZA ETA EKIPAMENDUA

4.3.1. ETXEBIZITZA PARKEA

ERABILERA IRAUNKORRA DUEN ETXEBIZITZA PARKEA (%)

2016



Arabako etxebizitzaren %82,4ak erabilera iraunkorra du. Gainontzeko etxebizitza parkeak bigarren mailako erabilera dauka, edo hutsik da. Erabilera iraunkorreko etxebizitzaren presentzia handiena hiriburuan (%88,2) eta Aiarako kuadrillan (%82,6) kokatzen da. Presentzia txikiena, ordea, Trebiñun, Kanpezun eta Arabar Errioxan.

2001/2011 epealdian hirigintza jarduera bizia eman da Araban, eta hain zuzen ere, Trebiñu, Kanpezu eta Arabar Errioxan famili etxebizitza nagusien hazkunde apalenak eman dira (ikus taula). Hau da, hamarkada horretako hirigintza jarduerak lurralde desorekak handitzen lagundu du.

ETXEBIZITZA PARKEA, EZAUGARRI NAGUSIEN ARABERA ARABAKO KUADRILLAK, 2016


	Famili etxebizitza nagusiak		Gainontzeko etxebizitzak	Antzinakota suna (urte)	Azalera erabilgarria (m2)
	Orotara - 2016	Hazkundera - 2001/11			
Gasteiz	103.226	26,7	13.765	33	85
Aiara	13.850	21,3	2.927	40	95
Lautada	4.947	44,7	1.621	39	114
Arabar Errioxa	4.578	20,5	3.961	52	105
Gorbeialdea	3.664	37,1	1.564	41	138
Añana	3.573	43,1	2.439	54	123
Kanpezu	1.427	15,8	1.443	47	110
Trebiñu	875	20,4	1.300	-	-
ARABA	136.140	27,0	29.020	36	92
<i>Euskal A.E.</i>	<i>887.241</i>	<i>15,1</i>	<i>158.524</i>	<i>43</i>	<i>87</i>

Oharra: Trebiñuko datuak 2011 urteari dagozkie.

Iturria: EUSTAT eta INE.



Erabilera iraunkorra duten etxebizitzaren proportzioa errepide sare nagusiaren presentziaren arabera da. Salbuespenak salbuespen, Araba hegoaldean etxebizitza hauen kopurua oso urria da oro har.




Oharra: Trebiñuko datuak 2011 urteari dagozkie.

4.3.2. OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK

Oinarrizko zerbitzu eta ekipamenduak Gasteizen metatzen dira eta iparraldeko kuadrilletan zerbitzuen eskuragarritasuna handiagoa da hegoaldean baino.

Arabako hiriburuan biltzen dira herrialde mailako estaldura duten zerbitzu eta ekipamendu gehienak. Lurralde ikuspegitik, hala ere, aipatzekoa da Iparraldeko kuadrillek zerbitzu horiekiko irisgarritasun handiagoa dutela, izan hiriburuarekiko gertutasunagatik zein Bizkaia eta Gipuzkoarekiko lotura ardatzetan biltzen diren zerbitzuengatik.

Hegoaldean, ospitale, Lanbide edo lanbide heziketako zentroak Arabar Errioxan daude soilik. Añana, Kanpezu, eta Trebiñu, zerbitzuen gabezi nabarmena dute.





5.

Jarduera eta egitura
ekonomikoa

Arabak nortasun industrial indartsua izan du azken 50 urteetan, nagusiki hiriburuan eta errepide sare nagusian ardaztutako ehun ekonomikoan oinarriturikoa. Baina herrialdeak jarduera ekonomiko anitzak barnebiltzen ditu bere baitan, tradizio handikoak zenbaitzuk.

Alabaina, azken urte hauetan sakoneko aldaketak abian dira Arabako zein Europako egitura ekonomikoan, gurean oso presente diren industria jarduerak kaltetuz. Zentzu horretan, une egokia da lurraldea eta ekonomia arteko harremana birpentsatzeko, eta herrialde aurreratuenetan bezala, garapen ekonomikorako politikak eratzerakoan tokiko erreallitateek Araban ere merezi duten tokia izateko.

Lurralde baten egitura ekonomikoa prozesu historiko konplexuen emaitza da, eta dinamismo ekonomikoa, tokiko aukera eta eskaintzen ondorioa. Jakina, eremu geografikoa txikitu heinean, lurralde eremuen arteko egitura desberdintasunak handitzen dira.


Hortaz, lurralde batetik bestera tokiko garapen ekonomikorako estrategien egoera eta helburuak desberdinak izan behar dute, lurralde bakoitzaren estrategia tokiko behar eta gaitasunen araberakoa izan dadin. Ildo horretan, lurralde bakoitzeko enpresen ezaugarriei erreparatu beharra dago, enpresa handientzat erkidego edo Europa mailako politikek garrantzi handia badute, mikroenpresentzat garrantzi berezia baitu tokiko garapen ekonomikoak.

Ehun ekonomikoaren sinergiak bilatuz tokiko ezagutza-sareak bultzatu behar dira, garapen ekonomikoa eta ingurumenaren arteko antagonismo zaharrari garapen teknologikoaz, berrikuntzaz eta kontzientziazioaz aterabide emanez.

5.1. EKONOMIA EGITURA

5.1.1. ONDASUN EKONOMIKOEN SORRERA LURRALDEAN

BPGren SORRERA (MILIOI €)
ARABAKO KUADRILLAK, 2012



Oharra: Trebiñurako daturik ez.

Herrialdeko


BPGren %72a

Gasteizen metatzen da.

Herrialdeko Barne Produktu Gordinaren ia hiru laurdenak Gasteiz dute iturburu. Aiaran sortzen da Arabako BPGren beste %11a. Gainontzeko kuadrillek herrialdeko BPGren %5a edo gutxiago bereganatzen dute.

BPGren SORRERA (MILIOI €)

2012



Iturria: EUSTAT eta GAINDEGIA.

Garraio azpiegitura nagusiek berebiziko garrantzia dute lurraldearen egitura ekonomikoan.

Europa eta Afrika arteko garraio ardatz nagusien inguruan metatzen da herrialdeko ondasun ekonomikoaren sorrera.

2009 urteaz geroztik garraioari loturiko logistikaren aldeko apustuak garraio materialaren ondasunen sorrera areagotu du. Bestelako sektore estrategiko batzuk, ordea, zailtasun ekonomiko nabarmenak dituzte oraindik ere testuinguru ekonomiko berrian.


BPG BIZTANLEKO

Berantevilla, Legutio eta Laguardiako *per capita*-ko urteko BPGa 100.000€tik gorakoa da.

Berantevillan Lacorzanillako industria gunea, eta Legution, Goiaingo industria gunea egoteak herrialde mailan biztanleko BPG handiena duten udalerrri bihurtzen ditu.. Laguardiako kasuan, ardogintza jarduerak dakar BPG altua izatea.

Beste muturrean kokatzen dira Zaldondo, Aramaio, Kripan, Iruraiz-Gauna, Barrundia edo Harana bezalako udalerrriak, non *per capita*-ko urteko BPGa ez den 17.000€ra iristen. Garraiobide nagusiekiko gertutasunak ez du BPG *per capita* indartsurik ziurtatzen, joan-etorriko eremuak baitaude ere. Horrela, kuadrilla guztietan daude BPG ahula duten udalerrriak.

2012




EHUN EKONOMIKOAREN DENTSITATEA

2016

Arabar Errioxan eta Kanpezuko kuadrilletan metatzen da establezimenduen *per capita*-ko proportzio handienak.

Ehun ekonomikoaren dentsitate txikiena Trebiñuko kuadrillan ematen da, biztanleria urritasuna bere ezaugarrietako bat bada ere.





Iturria: EUSTAT, INE, CAMERDATA eta GAINDEGIA.
Oharra: Trebiñurako datuak 2012 urteari dagozkie.

5.1.2. LURRALDEEN NORTASUN EKONOMIKOA

>> LEHEN SEKTOREAREN PRESENTZIA LEHEN SEKTOREKO BALIO ERANTSIA (%)

2012





Oharra: Trebiñurako daturik ez.

>> INDUSTRIA SEKTOREAREN PRESENTZIA

MANUFATURA-INDUSTRIA ETA GAINONTZEKO INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA (%)

2012




Oharra: Trebiñurako daturik ez.

EHUN EKONOMIKOAREN ESPEZIALIZAZIOA LEHEN SEKTOREAN (%)

2016

Añana, Kanpezu, Lautada eta Arabar Errioxako ehun ekonomikoak lehen sektorean espezializazio maila handia dauka.

Kanpezuko kuadrillaren ondasun ekonomikoen sorreran lehen sektoreak pisu nabarmena dauka (*ikus ezkerreko grafikoa*). Edonola ere, mapak erakutsi bezala lurraldearen ehun ekonomikoak lehen sektorean espezializazio maila garrantzitsua du lau ardatzetan: Añana, Kanpezu, Lautada eta Arabar Errioxako kuadrillen eremu gehientsuenean.




Oharra: Trebiñurako daturik ez.

EHUN EKONOMIKOAREN ESPEZIALIZAZIOA INDUSTRIAN (%)

2016

Arabako kuadrilla guztietan industria jarduera oso lotuta dago manufaktura-industriari. Industria honen presentzia bereziki handia da Arabar Errioxan, eta beste maila batean, Gorbeialdean, Aiaran eta Añanan. Hain zuzen ere, industria arloan ehun ekonomikoaren espezializazio-maila kuadrilla hauetan kokatzen da. Errepide nagusian kokaturik eta Gasteiztik 12 kilometrora dagoen Goian industriaguneak berebiziko pisua dauka Gorbeialdeko ehun ekonomikoaren errealitatean. Arabar Errioxan ardogintzaren bueltan industria-ardatz garrantzitsua dago. Industrian espezializaturiko gainontzeko eremuak errepide sare nagusitik gertu kokatzen dira.





Oharra: Trebiñurako daturik ez.

>> ERAIKUNTZA SEKTOREAREN PRESENTZIA

ERAIKUNTZA SEKTOREKO BALIO ERANTSIA (%)

2012





Oharra: Trebiñurako daturik ez.

>> ZERBITZUEN SEKTOREAREN PRESENTZIA

ZERBITZU SEKTOREKO BALIO ERANTSIA (%)

2012



Oharra: Trebiñurako daturik ez.


- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa
- Herri admin, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitz.
- Gainontzeko zerbitzuak

EHUN EKONOMIKOAREN ESPEZIALIZAZIOA ERAIKUNTZA SEKTOREAN (%)

Eraikuntzaren balio erantsi handiena Gasteizen metatzen da.

Arabako eraikuntza sektorea bere puntu gorenera heldu zen 2007 urtean, ordutik, higiezinaren burbuilaren ez tandarekin batera gainbehera handia pairatu du. Ohikoa da landa-eremuetako ekonomian eraikuntza sektoreak beste eremuetan baino pisu handiagoa izatea, baina Arabako kasuan, ez da horrela gertatzen. Milurtekoaren hasierarekin eraikuntza jarduerak izugarriko hazkundea izan zuen hiriburuan, eta egun egoera bestelakoa bada ere, horren ondarea nabarmena da. Edonola ere, sektore honetan Okondo, Kanpezu, Alegria-Dulantzi, Erriberagoitia eta Erribera Beitiako ehun ekonomikoaren espezializazioa handia da ere.

2016




Oharra: Trebiñurako daturik ez.

EHUN EKONOMIKOAREN ESPEZIALIZAZIOA ZERBITZUEN SEKTOREAN (%)

Gasteiz da zerbitzuen ardatz nagusia, zerbitzu espezializatuen eremua lurraldean.

Zerbitzuen sektoreak berebiziko garrantzia dauka egun kuadrilla gehienen ondasunen sorreran. Arabar Errioxa da zerbitzuekiko menpekotasun txikiena duen kuadrilla, eta beste maila batean, Gorbeialdea eta Añanan, izan ere hirurak nortasun industrial handikoak dira. Era berean, hauen industria ehunari loturiko zerbitzu berezien eskaintza hiriburuan metatzen da maila handi batean.

2016




Oharra: Trebiñurako daturik ez.


5.1.3. LURRALDEEN TRAKZIO EKONOMIKOA

>> BERRIKUNTZAN OINARRITURIKO TRAKZIOA

I+G BARNE GASTUA (%BPG)
ARABAKO KUADRILLAK, 2015



EHUN EKONOMIKO BERRITZAILEA (%)
ARABAKO KUADRILLAK, 2016




Arabako kuadrilla guztietako I+G gastua Euskal A.E. koaren azpitik kokatzen da. I+G gastu txikiena Añanan, Kanpezun, Arabar Errioxan eta Aiaran ematen da.


2015 urtean Europar Batasuneko Ikerketa eta Garapenerako gastua BPGren %2,03koa izan da. Araba mailako gastua apalagoa da (%1,47), EUSTATEko datuen arabera. Iturri horren arabera, Arabako kuadrilla guztietako I+G gastua nabarmen apalagoa da. Inbertsioaren proportzio garrantzitsuena Gasteiz-Lautadako kuadrilletan kokatzen da (%1,67), eta beste lau kuadrilletan, I+G gastua ez da bertako BPGren %1era iristen.

BERRIKUNTZAREN LURRALDE BANAKETA (%). ARABAKO KUADRILLAK


I+G GASTUA, 2015



I+G PERTSONALA, 2015



EHUN BERRITZAILEA, 2016



Oharra: I+G jardueretara dedikaturiko pertsonala dedikazio osoko baliokidetzan kuantifikatuta.

Iturria: EUSTAT, ELGA-OECD eta Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa. GAINDEGIA

BERRIKUNTZAN DIHARDUTEN ESTABLEZIMENDUAK, ADARRAREN ARABERA
ARABAKO KUADRILLAK, 2016

	Teknologia-maila handiko manufaktura (A)	Teknologia-maila ertain-handiko manufaktura (B)	Teknologia punta edo oso handiko zerbitzuak	IKT fabrikazioa	IKT zerbitzuak	Telekomunikazioak
Gasteiz	34	151	368	9	211	47
Aiara	0	17	25	0	13	3
Lautada	0	6	10	0	4	2
Arabar Errioxa	0	7	8	0	5	2
Gorbeialdea	2	13	4	0	4	0
Añana	2	14	5	0	1	0
Kanpezu	1	0	0	0	0	0
Trebiñu	-	-	-	-	-	-
ARABA	39	208	420	9	238	54
<i>Euskal A.E.</i>	<i>193</i>	<i>1.441</i>	<i>3.328</i>	<i>82</i>	<i>2.023</i>	<i>350</i>


Iturria: EUSTAT, ELGA-OECD eta Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa. GAINDEGIA.

Berrikuntza ehunaren gorputz nagusia *Teknologia punta edo oso handiko zerbitzuak* dira.

IKT zerbitzuek eta *teknologia maila-ertain handiko manufakturrek* presentzia indartsua dute. Lurralde ikuspegitik, hiriburuan metatzen da modu nabarmenean berrikuntza ehuna adar guztietan, Esaterako, IKT fabrikazioari loturiko Gasteizen kokatzen dira. *Teknologia-maila ertain-handiko manufaktura* (B) da deszentralizazio handiena duen berrikuntza adarra, Aiaran, Añanan eta Gorbeialdean presentzia garrantzitsua baitu.

EHUN EKONOMIKO BERRITZAILEA (%). 2016 URTEA

Gasteizko ehun ekonomikoaren %4,8a berrikuntza jardueretan dihardu. Gainontzeko kuadrilletan proportzio hori nabarmen apalagoa da. Hiriburua alde batera, berrikuntza jarduera garrantzitsua da Legutio, Agurain, Lantaron, Erribera Beitia, Zuia, Oion eta Okondon.



Oharra: Trebiñurako daturik ez.

>> EZAGUTZA INTENTSIBOAN OINARRITURIKO TRAKZIOA

EZAGUTZA INTENTSIBOAN DIHARDUTEN ESTABLEZIMENDUAK, ADARRAREN ARABERA
ARABAKO KUADRILLAK, 2016

	Goi-mailako teknologian oinarrituriko zerbitzuak	Ezagutza intentsiboan oinarrituriko merkatu zerbitzuak	Ezagutzan intentsiboan oinarrituriko finantza zerbitzuak	Ezagutza intentsiboko beste zerbitzu batzuk
Gasteiz	484	3.295	543	2.157
Aiara	43	258	64	240
Arabar Errioxa	21	124	36	79
Lautada	12	68	20	96
Gorbeialdea	8	93	15	88
Añana	5	52	11	69
Kanpezu	1	20	9	30
Trebiñu	-	-	-	-
<i>Zehaztugabea Araban</i>	<i>1</i>	<i>26</i>	<i>0</i>	<i>0</i>
ARABA	575	3.936	698	2.759
<i>Euskal A.E.</i>	<i>4.479</i>	<i>31.340</i>	<i>4.873</i>	<i>21.273</i>



Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT. GAINDEGIA.

Herrialdean goi-mailako teknologian oinarrituriko zerbitzuak eta ezagutza intentsiboan oinarrituriko merkatu zerbitzuak nozitzen dute metaketa handiena hiriburuan. Ezagutzan intentsiboan oinarrituriko finantza zerbitzuak eta ezagutza intentsiboko beste zerbitzu batzuk presentzia nabarmena dute Aiaran, eta Arabar Errioxan, ezagutzan intentsiboan oinarrituriko finantza zerbitzuen presentzia handia da.

7.968
establezimendu
ezagutza
intentsiboetan

EZAGUTZA INTENTSIBOKO EHUN EKONOMIKOA (%)

2016



Oharra: Trebiñurako daturik ez.

>> TAMAINAGATIK TRAKZIOA ERAGIN DEZAKEEN EHUNA

TAMAINA ERTAIN ETA HANDIKO ESTABLEZIMENDUAK
ARABAKO KUADRILLAK, 2016

Araban

500tik

gorako langileko 16
establezimendu
daude



	10-49 enplegatu	50-99 enplegatu	100-499 enplegatu	500tik gorako enplegatu
Gasteiz	1.223	147	104	13
Aiara	127	24	17	2
Arabar Errioxa	103	8	7	0
Lautada	60	10	3	0
Gorbeialdea	79	10	5	0
Añana	52	15	8	1
Kanpezu	12	0	2	0
Trebiñu	-	-	-	-
Zehaztugabea Araban	21	1	2	-
ARABA	1.677	215	148	16
<i>Euskal A.E.</i>	<i>10.361</i>	<i>1.372</i>	<i>849</i>	<i>84</i>

Iturria: EUSTAT. GAINDEGIA.

Arabako ehun ekonomikoan ugariak dira mikroenpresak, azken datuen arabera, orotara 22.703 dira herrialdean. Haei garrantzia kendu gabe, lurraldeko ehun ekonomikoan trakzio ekonomikoaren funtzioa eragin dezaketen eta inbertsio gaitasunerako aukera handiagoak dituzte tamaina handiagoko establezimenduak daude. Arabako ehun ekonomikoak establezimendu handi eta oso handien kopuru nabarmena du, horiek dakarten trakziorako aukera eta deslokalizatorako arrisku guztiakin. Enpresa ertainen metaketa enpresa handiena baino garrantzitsuagoa da Gasteizen eta Arabar Errioxan, Aiara edo Añanan ez bezala.

TAMAINA ERTAIN ETA HANDIKO EHUN EKONOMIKOA (%)

2016




Oharra: Trebiñurako daturik ez.


5.2. EKONOMIA DINAMISMOA

5.2.1. ONDASUN EKONOMIKOEN BILAKAERA LURRALDEAN

BPGren SORRERAREN BILAKAERA (MILIOI €)
ARABAKO KUADRILLAK, 1996/2012



BPG PER CAPITA. BILAKAERA 2008/2012



2008 urteaz geroztik egitura ekonomikoaren gaineko zenbait aldaketa gertatu dira herrialdean. Aldaketa horien artean, besteak beste, Arabako ondasun ekonomikoen sorreran Gorbeialdea eta Arabar Errioxako kuadrillen pisua murriztu egin da. 2008/2012 epealdian, Arabako bost udalerritik lautan *per capita*-ko BPGa apaldu egin da. Indikadore horren gutxitze handiena Zigoitian, Navaridas, Mañueta, Zanbrana, lekora eta Asparrenan gertatu da.


BARNE PRODUKTU GORDINA ARABAKO KUADRILLAK, 2008/2012

	BPG gordina (milioi €)			BPG per capita (€)		
	2008	2012	2008/12	2008	2012	2008/12
Gasteiz	8.127	7.782	-4,2	34.709	32.252	-7,1
Aiara	1.309	1.151	-12,1	38.402	33.461	-12,9
Lautada	386	344	-10,9	33.457	27.533	-17,7
Arabar Errioxa	702	603	-14,1	61.761	52.944	-14,3
Gorbeialdea	484	398	-17,7	52.663	40.817	-22,5
Añana	434	455	5,0	52.006	51.632	-0,7
Kanpezu	126	112	-10,8	39.403	35.467	-10,0
ARABA	11.567	10.845	-6,2	37.114	33.779	-9,0
<i>Euskal A.E.</i>	<i>69.648</i>	<i>66.776</i>	<i>-4,1</i>	<i>32.314</i>	<i>30.628</i>	<i>-5,2</i>


Iturria: EUSTAT. GAINDEGIA.

Establezimendu kopuruak gora egin du kuadrilla gehienetan, Gasteiz eta Aiaran salbu. Kanpezun beste inon baino gehiago hazi da kopuru hori, nahiz eta Arabar Errioxan establezimendu berrien ratio handiena kokatu.

ESTABLEZIMENDU BERRIEN SORRERA (mila biztanleko/urtean)



ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA (%)



■ 2008/12



■ 2008/16

5.2.2. LURRALDEEN NORTASUN EKONOMIKOAREN ERALDAKETA

>> LEHEN SEKTOREAREN ERALDAKETA

LEHEN SEKTOREKO BALIO ERANTSIAREN BILAKAERA (%)



2008/2012



>> INDUSTRIA SEKTOREAREN ERALDAKETA


INDUSTRIAKO BALIO ERANTSIAREN BILAKAERA (%)

2008/2012




LEHEN SEKTOREKO EHUN EKONOMIKOAREN BILAKAERA (%)

2012/2016





2012/2016



Oharra: Ez dago lehen sektoreko ehun ekonomikoaren gaineko daturik 2012 urtearen aurretik.

INDUSTRIAKO EHUN EKONOMIKOAREN BILAKAERA (%)



2008/2016



>> ERAIKUNTZA SEKTOREAREN ERALDAKETA

ERAIKUNTZA SEKTOREKO BALIO ERANTSIAREN BILAKAERA (%)



2008/2012




>> ZERBITZU SEKTOREAREN ERALDAKETA

ZERBITZUEN SEKTOREKO BALIO ERANTSIAREN BILAKAERA (%)


2008/2012



ERAIKUNTZA SEKTOREKO EHUN EKONOMIKOAREN BILAKAERA (%)




ZERBITZUEN SEKTOREKO EHUN EKONOMIKOAREN BILAKAERA (%)



5.2.3. LURRALDEEN TRAKZIO EKONOMIKOAREN ERALDAKETA

>> BERRIKUNTZAN OINARRITURIKO TRAKZIOAREN ERALDAKETA

BERRIKUNTZARAKO GASTUAREN BILAKAERA ESTABLEZIMENDU HANDI ETA ERTAINETAN (MILIOI €) ARABAKO KUADRILLAK, 2008/2016



2008 urtea

471,9 milioi €


2015 urtea

384,7 milioi €

Krisialdi ekonomikoak berrikuntzarako gastuaren murrizketa ekartzeaz gain, hiriburuan are gehiago metatzea eragin du

BERRIKUNTZAN DIHARDUTEN ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA

BILAKAERA 2008/16



Krisi urteetan berrikuntza jardueretan diharduten establezimenduak gutxitu badira ere, 2013 urtetik datuek joera aldaketa bat erakusten dute.

BERRIKUNTZAN DIHARDUTEN ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA, ADARRAREN ARABERA
ARABAKO KUADRILLAK, 2008/2016


	Teknologia-maila handiko manufaktura (A)	Teknologia-maila ertain-handiko manufaktura (B)	Teknologia punta edo oso handiko zerbitzuak	IKT fabrikazioa	IKT zerbitzuak	Telekomunikazioak
Gasteiz	-4	-43	-72	-3	-3	-6
Aiara	0	1	-3	0	7	1
Arabar Errioxa	0	-9	0	0	2	2
Lautada	0	-1	-1	0	0	1
Gorbeialdea	1	-2	-7	0	0	-1
Añana	-1	3	-1	0	-3	0
Kanpezu	0	0	-2	0	0	0
Trebiñu	-	-	-	-	-	-
Zehaztugabe	0	-1	-1	0	0	0
ARABA	-4	-52	-87	-3	3	-3
<i>Euskal A.E.</i>	<i>-34</i>	<i>-526</i>	<i>-303</i>	<i>-29</i>	<i>255</i>	<i>21</i>

Iturria: EUSTAT, ELGA-OECD eta Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa. GAINDEGIA.


Ehun ekonomikoaren galera handiena *Teknologia punta edo oso handiko* zerbitzuetan eta *Teknologia-maila ertain-handiko* manufakturan eman da. Portzentaietan, ordea, TIC fabrikazioan diharduen ehunaren laurdena galdu da 2008 urtetik hona.

BILAKAERA 2008/16

2008 urtetik hona berrikuntza jarduerak garatzen dituzten 146 establezimendu galdu dira Araban (-%13), gehientsuenak hiriburuan. Berrikuntza gastua gero eta establezimendu gutxiagotan metatzen da, hortaz.



>> EZAGUTZA INTENTSIBOAN OINARRITURIKO TRAKZIOAREN ERALDAKETA

EZAGUTZA INTENTSIBOAN DIHARDUTEN ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA
ARABAKO KUADRILLAK, 2008/2016

2008 urtean baino ezagutza intentsiboan diharduten 300 establezimendu gutxiago daude egun (-%4). Hau da, ezagutza intentsiboko jarduerak berrikuntzakoak baino hobeto eutsi diote urte zailenetan.



EZAGUTZA INTENTSIBOAN DIHARDUTEN ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA, ADARRAREN ARABERA ARABAKO KUADRILLAK, 2008/2016

	Goi-mailako teknologian oinarrituriko zerbitzuak	Ezagutza intentsiboan oinarrituriko merkatu zerbitzuak	Ezagutzan intentsiboan oinarrituriko finantza zerbitzuak	Ezagutza intentsiboko beste zerbitzu batzuk
Gasteiz	-51	-485	-47	282
Aiara	1	-2	-5	-10
Arabar Errioxa	6	12	-3	4
Lautada	-2	1	-1	13
Gorbeialdea	-8	3	0	11
Añana	-11	-6	1	6
Kanpezu	-2	0	0	-6
Trebiñu	-	-	-	-
Zehaztugabea Araban	0	1	0	-2
ARABA	-67	-476	-55	298
<i>Euskal A.E.</i>	<i>-13</i>	<i>-6.268</i>	<i>-304</i>	<i>2.534</i>

Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT. GAINDEGIA.

Ezagutza intentsiboko ehun ekonomikoan zenbait aldaketa nabarmen daude. Alde batetik, ezagutza intentsiboan oinarrituriko merkatu zerbitzuetako eta goi-mailako teknologian oinarrituriko zerbitzuetako hamar establezimendutik bat desagertu da. Aintzat hartu behar da ezagutza intentsiboan oinarrituriko merkatu zerbitzuek presentzia garrantzitsua dutela herrialdean, nagusiki hiriburuan. Bestetik, ezagutza intentsiboko beste zerbitzuek hazkunde nabarmena izan dute. Ezagutza intentsiboko ehunaren gaineko aldaketa hauek bereziki indarra dute hiriburuan.


EZAGUTZA INTENTSIBOKO EHUN EKONOMIKOA

BILAKAERA 2008/16


Ezagutza intentsiboko

301

establezimendu gutxiago Gasteizen.



>> TAMAINAGATIK TRAKZIOA ERAGIN DEZAKEEN EHUNAREN ERALDAKETA

TAMAINA ERTAIN ETA HANDIKO ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA
ARABAKO KUADRILLAK, 2008/2016

Krisi urteetan ehun ekonomiko ertain eta handiak uzkurtze garrantzitsua izan du Araban, Gasteizen beste inon baino nabarmenago.



2008 urteaz geroztik
enpresa ertainen

%17,5a

desagertu da.

TAMAINA ERTAIN ETA HANDIKO ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA ARABAKO KUADRILLAK, 2008/2016

	10-49 enplegatu	50-99 enplegatu	100-499 enplegatu	500tik gorako enplegatu
Gasteiz	-254	-26	-3	5
Aiara	-33	1	-3	-1
Arabar Errioxa	-6	2	0	0
Lautada	-3	4	0	-1
Gorbeialdea	-23	-7	-2	0
Añana	-11	4	0	1
Kanpezu	0	-1	0	0
Trebiñu	-	-	-	-
Zehaztugabea Araban	-25	-2	0	0
ARABA	-355	-25	-6	4
<i>Euskal A.E.</i>	<i>-1.717</i>	<i>-80</i>	<i>-43</i>	<i>5</i>

Iturria: EUSTAT. GAINDEGIA.


Herrialdeko egitura ekonomikoak agerizko zailtasunak nozitu ditu azken urteotako testuinguru ekonomikoan. Epealdi horretan, tamaina ertaineko (10 eta 49 bitarteko enplegatu) ehun ekonomikoak pairatu du uzkurdua handiena, mikroenpresak edo tamaina handiko enpresak baino gehiago. Horietariko asko 1960 eta 1970ko industrializazioan herrialdean ezarritako enpresak ziren, nazioarteko merkatu berrian manufaktura-industria zaharkituari errotutakoak eta inbertsio eta berrikuntzarako gaitasunerako muga nabarmenekin.

TAMAINA ERTAIN ETA HANDIKO ESTABLEZIMENDUAK

2008/16 epealdian Araban hamar langiletik gorako 382 establezimendu desagertu dira, horietatik, 278 Gasteizen. Herrialdeko egitura ekonomikoaren gaineko aldaketa hauek Gasteizko Gamarra edo Betoño bezalako industriaguneetako jarduera ekonomikoaren gutxitze garrantzitsua ekarri du. Aiaraldean eta Gorbeialdean ere establezimendu kopuru esanguratsua desagertu da, bere txikitasunetik, proportzioan Gasteizen baino gehiago, gainera.

Era berean, Añana, Lautada eta Arabar Errioxaren kasuan egun badira 2008 urtean baino 50tik gorako enplegatuko establezimendu gehiago.

BILAKAERA 2008/16




10 langiletik gorako establezimenduak aintzat hartu dira.

5.3. LAN MERKATUA

5.3.1. ENPLEGU SORRERA

LANPOSTU ETA LANDUNEN ARTEKO SALDOA

2015




Arabako 53 udalerrien artean 15 udalerrik enplegu bolumen aski dute, lan mugikortasuna alde batera, bertan bizi diren landun kopurua enplegatze moduan, Gasteiz, Legutio, Laguardia, Berantevilla, Lantarón, Oion, Iruña Oka, Asparrena eta Erribera Beitia dira buru.

Enplegu nahikotasun eskasa dute, ordea, Laudio, Agurain, Alegria-Dulantzi, Trebiñu, Zuia, Aramaio, Artziniega edo Amurrio. Herrialdean hiriburuak metatzen du eskulanaren enplegatzea, baina enplegu ikuspuntutik Aiaraldean Bilbo Handiarekiko edo Aramaion Debagoienarekiko menpekotasuna ageri da.

LANGABEZIA

2015



2015 urtean Arabako langabezia tasa %15,7koa da, Euskal A.E.n baino zertxobait apalagoa. Urte berean, Arabako 18 udalerritan langabezia tasa herrialdeko batz bestekoaren gainetik kokatzen da: hauen artean, Oion (24,7), Zanbrana (24,5), Moreda Araba (24), Berantevilla (22,5), Elciego (21,2), Iekora (20,2) edo Labastida (19,7). Langabeziaren intzidentzia mugatua da, ordea, Harana, Bernedo edo Burgelu bezalako landa-eremuko beste zenbait udalerrri txikietan.

Langabeziaren fenomenoak hiriburuetan metatu ohi da, eta Araban ere, hala gertatzen da. Edonola ere, herrialdeko eremu periferikoetan, hegoaldean gehienbat, langabeziaren eragina nabarmena da.

Gasteiz, Arabar Errioxa eta Añanak enplegu bolumen aski dute.


ENPLEGU NAHIKOTASUNA ARABAKO KUADRILLAK, 2015

	Lanpostuak	Landunak	Lanpostu nahikotasuna
Gasteiz	112.755	104.069	8.686
Aiara	11.763	14.329	-2.566
Arabar Errioxa	5.953	4.570	1.383
Lautada	3.181	5.956	-2.775
Gorbeialdea	4.542	4.672	-130
Añana	5.171	4.114	1.057
Kanpezu	870	1.330	-460
Trebiñu	354	1.185	-831
ARABA	144.589	140.225	4.364
<i>Euskal A.E.</i>	<i>885.355</i>	<i>902.034</i>	<i>-16.679</i>

Oharra: Trebiñuko datuak 2011 urteari dagozkie.


Iturria: EUSTAT, Espainiako G.S. eta Enpl. Min, INE eta GARAPEN. GAINDEGIA.

Arabar Errioxa eta Aiarako kuadrilletan metatzen da langabezia maila handiena. Iraupen luzeko langabezia maila handienetarikoa hemen kokatzen da ere. Hala ere, herrialdean langabeziaren kronifikazio joeraren erakusle argiena Gasteiz da.



EZ-AKTIBOTASUNA LAN ADINEAN

2015




Bistakoa da herrialdeko lurralde argazkian langabezia eta ez-aktibotasun mailaren arteko nolabaiteko harremana dagoela. Lurraldearen gaineko korrelazioa uler liteke aintzat hartzen bada azken urteotan enplegu ezak edo kalitate eskaseko enpleguak ez-aktibotasun egoera sustatu duela.

Kasu batzuetan, ez-aktibotasun maila hauen atzean emakumezkoen presentzia indartsua ezkututzen da (*argazki sakonagoa Kohesio Sozialaren atalean*), esaterako, argi eta garbi Aiarako kuadrillan, edo Amurrio, Eskuernaga eta Lantziegon.

Oro har, Arabar Errioxako udalerri ugaritan 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren ez-aktibotasun maila handia da.



Langabeziarekin gertatu bezala, lan adineko herritarren artean ez-aktibotasun maila handiena Arabar Errioxa eta Aiara kuadrilletan metatzen da. Nolanahi ere, Europar Batasuneko ez-aktibotasuna nabarmen handiagoa da biztanleria segmentu horretan.




5.3.2. LANDUNEN KUALIFIKAZIOA ETA KONTRATAZIOAREN EGOKITASUNA

Arabako kualifikazio handiko enplegua dutenen proportzio handiena Gorbeialdeko kuadrillan bizi dira (2011). Horrek ez du esan nahi kuadrillan bertan lan egiten dutenik, ezta gutxiago ere. Hain zuzen ere, lan errenta (eta errenta erabilgarria) handiena kuadrilla horretan kokatzen da. Gertu kokatzen da ere Gasteiz, berrikuntza eta ezagumendu ehunaren metaketa eremu garrantzitsua den neurrian.

Herrialdeko hegoaldean, Trebiñun, Arabar Errioxan eta Kanpezuko kuadrilletan, kualifikazio handiko enplegudun gutxi bizi dira.


KUALIFIKAZIO HANDIKO LANDUNAK, BIZITOKIAREN ARABERA (%) ARABAKO KUADRILLAK, 2011




OINARRIZKO LANBIDEETAKO LANDUNAK, BIZITOKIAREN ARABERA (%) ARABAKO KUADRILLAK, 2011

2011 urtean Araban hamar landunetik batek oinarrizko lanbide bat zeukan. Kuadrillen artean ez zegoen proportzio honen gaineko bariazio bereziki handirik. Ordutik, oinarrizko lanbideetarako kontratazio bolumenak pisu handia hartu du, bereziki Arabar Errioxan.

Azken lau urteotako oinarrizko lanbideetarako kontratazioak pisu handia izan du guztizko kontratazio bolumenean. Zentzu horretan aldea handia da enplegu egitura eta azken lau urteotako kontratazio bolumenaren artean.



KUALIFIKAZIO HANDIKO KONTRATAZIO METATUA,
GUZTIZKO KONTRATAZIO BOLUMENAREKIKO (%)
ARABAKO KUADRILLAK, 2012/2016 EPEALDIA




Azken lau urteko kontratazioaren

%14,2a

kualifikazio handiko lanpostuetarako izan da. Kanpezun salbu, kontratazio bolumen honek enplegu errealitatearen okertzea ekarri du.

OINARRIZKO LANBIDEETARAKO KONTRATAZIOA (%)
ARABAKO KUADRILLAK, 2012/2016 EPEALDIA



Azken lau urteotan Arabako kontratazioaren

%39a

oinarrizko lanbideetarako izan da. Arabar Errioxan, kopuru hori


%71koa

izan da.

5.3.3. KALITATEZKO ENPLEGUA

KONTRATAZIO MUGAGABEA (%)

2012/2016




Herraldean azken lau urteotako kontratazio bolumenaren %5,7a kontratazio mugagabea izan da. Proportzio horren azpitik kokatzen dira hamar udalerritik zazpik. Hots, kontratazio mugagabeak, bere murriztasunean bada ere, lurralde hedadura murrizta dauka.

Kontratazio mugagabearen proportzio handiena izan duten udalerrien artean, aipatzekoak dira Lagran, Erriberagoitia, Zuia, Legutio, Iruña Oka, Argantzun, Donemiliaga edo Zigoitia. Gasteiz herrialdeko batz bestekoaren gainetik kokatzen da ere.

KONTRATAZIO MUGAGABEA EMAKUMEZKOEN ARTEAN (%)

2012/2016




2012/2016 epealdian herrialdeko emakumezkoen kontratazio bolumenean kontratu mugagabeek %6,3a osatu dute. Hau da, emakumezkoek gizonetzkoek baino aukera zertxobait handixeagoa izan dute kontratazio mugagabe bat lortzeko. Diferentzia txikia da eta datuok elementu desberdinen testuinguruan jarri behar dira.

Nola edo hala, lurralde ikuspegitik, agerizkoa da kontratazio mugagabearen presentzia handia emakumezkoen kontratazio mugagabe maila handiarekin bat datorrela.

KONTRATAZIO MUGAGABEA GAZTEEN ARTEAN (%)

2012/2016




Gazteen artean emandako ehun kontratuko soilik lau mugagabeak izan dira azken lau urte hauetan (%4,0). Herrialdeko proportzio apal horrek ez du lurraldearen gaineko hedadura handirik. 2012 urtetik gazteen kontratazio mugagabeen bolumen handiena Urkabustaiz, Kanpezu, Iruña Oka, Legutio eta Zigoitian eman da.

Gazteen kontratazio mugagabearen presentziak harremana dauka guztizko kontratazio mugagabearen presentzia indartsuarekin, baina harremana emakumezkoen kasuan baino ahulagoa da.

16 eta 24 urte bitartekoak kontratazioa aintzat hartu da.


Gorbeialdea eta Gasteizko kuadrillak buru herrialdeko kontratazio mugagabeen. Haatik, 2012 urtetik kontratazio mugagabeak indarra galdu du kuadrilla guztietan, Gorbeialdean salbu.

■ 2008/2012
■ 2012/2016




Emakumezkoen artean, 2012az geroztik kontratazio mugagabearen proportzio handiena Trebiñun eta Gorbeialdean kokatu da. Bereziki ahula izan da, aldiz, Lautada eta Arabar Errioxan.

■ 2008/2012
■ 2012/2016



Gazteen kontratazio bolumenean mugagabetasun mailari erreparatuta eta fenomenoaren ahultasuna aitortuz, baldintza onenak Gorbeialdeako kuadrillan eman dira.

■ 2008/2012
■ 2012/2016





6.

Kohesio sosiala


Kohesioa latinezko “cohaesum” hitzetik dator eta kohesio soziala ertz guztiak erabat definitu gabe dituen dimentsio anitzeko kontzeptua bada ere, lurralde iraunkortasunaren ikuspegitik egokia da aukera berdintasunean, elkartasun sozialean eta ondare soziokulturalean egituratutako kohesio soziala balioan jartzea.

Kohesio soziala baldintzatzaille historiko eta geografikoen ondorioa da eta politika publikoek hauen gaineko eragina dute: maila sozioekonomikoaren gaineko desorekak arindu, herritar oroaren aukera berdintasuna sustatu bere bizitokia, generoa eta jatorria edozein delarik, edota egoera zaugarrian diren herritarrak babesteko eginkizuna dute. Horretarako, lurralde osoaren kohesio sozialaren eraikuntzan erakunde publiko indartsu eta legitimoen inplikazioa funtsezkoa da.

Baina komunitate baten gizarte kohesioa eragile eta norbanako guztien artean eraikitzen da, eta zeregin horretan, eragile pribatuen parte hartzeak ere berebiziko garrantzia dauka. Herritarren ekintzailetasuna testuinguru horretan ulertu beharra dago.

6.1. HERRITARREN ERRENTA ETA OREKA SOZIOEKONOMIKOA

ERRENTA PERTSONAL ERABILGARRIA



OREKA SOZIOEKONOMIKOA

ERRENTA PERTSONALAREN BANAKETA

ARABAKO KUADRILLAK, 2014


	Diru-sarrera txikienak dituzten pertsonen %20ren batez besteko errenta	Diru-sarrera handienak dituzten pertsonen %20ren batez besteko errenta	20/80 ratioa	Diru-sarrera txikienak dituzten pertsonen %50ren batez besteko errenta	Diru-sarrera handienak dituzten pertsonen %50ren batez besteko errenta	50/50 ratioa
Gasteiz	157	48.750	0,3	5.596	33.519	16,7
Aiara	72	46.914	0,2	5.008	32.420	15,4
Arabar Errioxa	3	40.741	0,0	3.899	26.661	14,6
Lautada	327	45.614	0,3	6.592	32.227	20,9
Gorbeialdea	398	56.741	0,7	7.044	38.737	18,2
Añana	8	45.494	0,0	4.665	30.704	15,2
Kanpezu	1.044	44.040	2,4	6.430	29.755	21,6
Trebiñu	-	-	-	-	-	-
ARABA	141	48.333	0,3	5.511	33.181	16,6
Euskal A.E.	76	50.582	0,2	4.997	33.761	14,8

Iturria: EUSTAT eta INE.

| 2014

2009/2014 epean Añanako batz besteko errentak izan du jaitsiera handiena.


Gorbeialdea, Lautada eta Gasteizko kuadrilletako batz besteko errentak Arabakoaren gaineretik daude. Aldiz, tarte handiagatik errenta pertsonal txikiena Arabar Errioxan kokatzen da. 2009 urteaz geroztik herrialdeko batz besteko errentak jaitsiera nabarmena izan du (-%3,2), eta jaitsiera hori, are handiagoa izan da Añanan, Lautadan eta Gasteizen.



20/80 RATIOA. 2014 URTEA

Landa-eremuan errenta oreka handiena aurki daiteke. Arabako hegoaldean eta herrialdeko gune urbano handienetan, ordea, errenta desoreka handienak.

20/80 eta 50/50 ratioetan erabateko berdintasunaren isla 100 balioan adierazten da. Kontrako muturra litzateke, hortaz, zero balioa. Hau da, mapan zenbat eta ilunagoa egon udalerria orduan eta handiagoa da errenta oreka. Kanpezuko kuadrilla eta Harana, Lagran, Kuartango, Bernedo eta Barrundiako udalerriak dira oreka handiena duten lurraldeak. Oreka txikienekoak, aldiz, Arabar Errioxa eta Añanako kuadrilla eta bi kuadrilla hauek osatzen duten udalerrri gehienak.




6.2. HERRITARREN ONDARE SOZIOKULTURALA

6.2.1. HERRITARREN FORMAZIOA

BIZTANLERIAREN FORMAZIO-MAILA (%)


2016



Oharrak: 10 urtetik gorako biztanleria aintzat hartu da. Trebiñun LH-dun ikasketadunak bigarren mailako barruan zenbatuta daude. 2011 urteko datua.

GUTXIENEZ BIGARREN MAILAKO IKASKETAK DITUEN BIZTANLERIA (%)

2016




Gorbeialdea eta Gasteizko kuadrillan goi-formazioko giza kapital nabarmenena dago.

Arabako hamar urtetik gorako herritarren %22,8ak bigarren mailako ikasketak burutu ditu, eta beste %23 batek, goi-formazioko ikasketak. Azken hauen artean, esaterako, garrantzitsua da Gorbeialdean *Arkitektura, eraikuntza eta ikasketa teknikoak* burutu dituztenen presentzia; bestalde, nabaria da *Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta albaitaritzan* formatutako herritarren presentzia Arabar Errioxan eta Kanpezun.

Gutxienez bigarren mailako ikasketak burutu dituztenen presentzia joeraz ahulagoa da Arabako Errioxan, hala nola Añana eta Kanpezuko zenbait eremuetan.

BIZTANLERIAREN IKASKETA-ADARRA (%)




6.2.2. HERRITARREN ELEBITASUNA

HERRITARREN HIZKUNTZ-BILAKAERAREN TIPOLOGIA (%). 2011 URTEA

Arabako herritarren %41,6ak euskara menperatzen du maila batean edo bestean, horien artean, *euskaldunberriak* nagusi dira. *Euskaldunberrien* proportzio handiena Aiaran eta Lautadan kokatzen da.


Euskaldunzaharren proportzio handiena Gorbeialdean kokatzen da, *Erdaldunzaharrek*, ostera, presentzia oso handia dute Kanpezun, Arabar Errioxan eta Añanan.



6.3. HERRITARREN JATORRIA

ESPAINIAR ESTATUTIK KANPOKO BIZTANLERIA (%)

2016



Udal erroldaren arabera, Araban egun 34.007 atzerritar daude. Hau da, egungo arabarren %10,4a espainiar estatutik kanpo jaioa da. Ez da proportzio txikia baina kopurua bere neurrian jartzeko, oraindik gehiago dira Gaztela eta Leonen jaiotako arabarrak (60 eta 70. hamarkadetan bertaratutakoak, gehientsuenak) atzerrian jaiotako etorkin multzo osoa baino.

Arabako etorkinen artean jatorri aniztasuna handia da eta ez dute *corpus* bakarra osatzen: behar sozioekonomiko eta bertakotzeko zailtasun desberdinak dituzte, eta hala, interbentzio publiko eraginkor baterako estrategia desberdinak beharrezkoak dira. Aintzat hartu behar da kohesio sozialaren ikuspegitik komunitate zaugarriak direla.

Bi kontinentek dute presentzia nabarmena kolektibo honen barruan: Amerikan jaiotako herrialdeko etorkinen %41a, eta beste %32,1a, Afrikan. Herrialde ikuspegitik, Maroko eta Kolonbia dira jatorri nagusiak, eta beste maila batean, Aljeria, Pakistan, Errumania, Ekuador eta Portugal. Arabako pakistandarren komunitatea oso maskulinizatua dago (%76), eta Amerikatik datozen komunitate gehientsuenak, aldiz, nabarmen feminizatuta.

Etorkinen presentzia

%10etik


gorakoa da soilik
Gasteizen eta Arabar
Errioxan.



Gasteizen herrialdeko lan aukera anitzena metatzen da (zerbitzuak, eraikuntza, industria) eta, Arabar Errioxan, ardogintzari loturikoak. Etorkinak erakartzeko bi gune nagusi dira eta jatorrizko zenbait komunitateen babesa ere bertan metatzen da.

Marokon jaiotako etorkinak bereziki presentzia handia dute Arabar Errioxan eta Lautadan. Kolonbian jaiotako etorkinen metaketa, aldiz, hiriburuan gertatzen da. Aljerian jaiotakoak, ordea, Lautadan, Gasteiz eta Aiaran.

Portugalen jaiotakoen presentzia Araban oso garrantzitsua ez bada ere, hauen presentzia garrantzitsua da Trebiñun eta Arabar Errioxan, ardogintza eta lehen sektoreari loturikoa.



34.007

atzeritar geografian barrena

(%10,4)




6.4. JARDUEREN ETA ERRENTAREN GENERO OREKA

6.4.1. INAKTIBITATEAREN FEMINIZAZIOA

BIZTANLERIA EZ-AKTIBOAREN FEMINIZAZIO-MAILA (%)

2015



Oharrak: 30-59 urte bitarteko biztanleria aintzat hartu da.


Trebiñurako daturik ez.

Aiarako herritar ez-aktiboen artean lautik hiruk emakumezkoak dira, eta Gasteizen ere, garrantzitsua da feminizazio maila. Hau da, gune industrial eta urbanoenetan fenomeno oso presente dago oraindik ere.

6.4.2. ERRENTAREN GAINEKO GENERO OREKA

EMAKUMEZKOEN ERRENTA ERABILGARRIA, GIZONEZKOEKIKO ALDERATUTA (%)

2014



Trebiñurako daturik ez.


Joeraz errentaren genero desoreka handitzen da enplegua industriarekin lotura handia duenean. Industriak lan errenta handienak eskaintzen ditu eta historikoki maskulinizatutako sektorea da. Ondorioz, Aiaran, Añanan eta Lautadan desoreka handienak ematen dira.

31 udalerritan

ez-aktibotasun fenomenoaren feminizazio maila %60tik gorakoa da.

Feminizazio handiena Artziniegan, Samaniegon, Lezan, Eskuernagan, Aiaran, Laudion eta Amurrion ematen da.

2015




45 udalerritan

emakumezkoen errenta gizonzkoenaren %75a baino apalagoa da.

Generoaren gaineko errenta desoreka handienak Amurrion, Aiaran, Laudion, Moreda Araban eta Eltziegion ematen dira.


2014



6.5. GIZA EKINTZAILETASUNA


ELKARTEGINTZA EHUNAREN DENTSITATEA (%)

2017



AUTONOMOEN PRESENTZIA (%)

2017



Trebiñuko jarduera ekonomikoan autonomoen presentzia funtsezkoa da.

Autonomoen presentzia handia izan ohi da landa-eremuetan, nukleo urbano handietako aukera aniztasunaren faltan, ekintzailetasuna bertan lan eta bizitzeko hautua berma dezaketelako. Testuinguru horretan kokatu behar da Trebiñu, Kanpezu, Lautada edo Arabar Errioxako autonomoen proportzioa Gizarte Segurantzari altan emandako unibertsoan. Trebiñuko autonomoen proportzioa hain da handia, ezen lurralde zaurgarri baten zantzuak dituen. Azkenengoa ez da hamarkada erraza izan autonomoentzat, bereziki Trebiñun eta Kanpezun.


3.995

elkarte erregistratuta


Arabako lurraldean ia lau mila elkarte erregistratuta daude egun, horietatik, %60a elkarte kulturalak dira, eta beste %18,5a, sozio-ekonomia esparrukoak. Elkarte kopurua biztanleriarekin gurutzatuta, Kanpezuko kuadrillan elkartegintza dentsitatea oso handia da gainontzeko herrialdearekin alderatuta. Urrun kokatzen dira Lautada, Gorbeialdea, Arabar Errioxa edo Añana, elkartegintza ehun garrantzitsua izan arren ere.

Kanpezuko kuadrillako udalerrri askotan elkartegintza ehuna oso garrantzitsua da.


2017



BILAKAERA 2006/16



2017



A person wearing a purple t-shirt and blue jeans is pushing a stroller on a paved path. The stroller has a blue cover. To the left, another person in a white long-sleeved shirt is partially visible, holding a silver water bottle. The background is a blurred green lawn and trees.

7.

**Metabolismo
demografikoa**

Mendebaldeko ezaugarri demografikoak oso presente daude gure lurraldean. Biztanleriaren zahartze prozesua aurrera doa, bizi-itxaropena handia da gurean eta jaiotza kopurua murrizten hasia da indartzen ari diren familia eta bizi eredu berrietara egokituz. Azken urte hauetan, gainera, Araba aro demografiko berri baten hastapenean murgilduta dago, non biztanleria bolumena egonkortzeko edo gutxitzeko joera duen.

Testuinguru honek aukera berriak zabaltzen ditu demografiaren esparrutik lurraldearen iraunkortasun ekosistemikoaren ikuspuntuan ekarpen eta urrats berriak egiteko. Horregatik, metabolismo demografikoaren diagnosiak hiru ardatz ditu: Bizigarritasuna, belaunaldi oreka eta nahikotasun demografikoa. Lurralde orearen iraunkortasuna bermatzeko eta elkarri eragiten dioten oinarrizko hiru elementu.

Bizigarritasuna. Geroa bermatzeko ezinbesteko baldintza da herritarrak mantendu edo erakartzeko gaitasuna duten lurraldeak sustatzea. Gazteak, emakumeak, edota oro har, bere herritarrak mantentzen dituzten lurraldeak bizigarritasun egoki baten espresioa dira.


Belaunaldi oreka. Belaunaldi desorekek lurralde baten oraina, eta batez ere, etorkizuneko iraunkortasun demografikoa atakan jarri dezaketelako, funtsezkoa da ahal den neurrian belaunaldi aniztasun handiena bermatzea lurraldearen bazter guztietan. Herrialdeko azken mende erdiko planifikazio gabeko gorabehera demografikoei aurre egitea (1960-70. hamarkadak iturburu), eta hortik eratortzen den zahartze demografiko indartsuari erantzutea, lurralde osoaren erronka partekatua da egun.

Nahikotasun demografikoa. Lurraldeek gaitasun propioz bere iraunkortasun demografikoa bermatzeko gai izatea eszenatoki hobezina da, soilik horrela ziurtatu baitaiteke tokiko etorkizun demografikoa. Egungo nahikotasun kaxkarra epe luzearako gabezien orubea da.

7.1. BIZIGARRITASUNA

7.1.1. BIZTANLERIAREN BILAKAERA

BIZTANLERIAREN BILAKAERA HISTORIKOA ARABAKO KUADRILLAK, 1900/2011



Iturria: INE. Izatezko biztanleria.


%75,1

Arabako herritarren %75,1a Gasteizen bizi da egun (2016). 1960 urtean, proportzio hori %51,7koa zen, eta bi hamarkada beranduago, industrializazio prozesuaren amaieran, %73,5koa (1981). Espainiar estatuko etorkinekin batera, Arabako landa-eremuko biztanle kopuru garrantzitsu bat Gasteizera joan zen.



BIZTANLERIA OSOA

1960

2016



1981



BIZTANLERIA OSOA
ARABAKO KUADRILLAK, 2000/2016

2012 urteaz geroztik biztanleria galera nagusitu da Arabako geografian, ez ordea, hiriburuan. Trebiñu eta Kanpezuk galdu dute herritar kopuru garrantzitsua.

	Epealdiko hazkunde-tasa				Kop.gordina
	2000/04	2004/08	2008/12	2012/16	2016
Gasteiz	2,9	3,9	4,2	1,0	244.634
Aiara	-0,3	2,3	2,1	-0,3	34.429
Arabar Errioxa	5,0	8,3	1,3	-2,2	11.182
Lautada	10,4	12,9	9,5	-1,0	12.405
Gorbeialdea	12,1	10,6	7,4	-1,5	9.643
Añana	12,4	15,8	6,9	0,3	8.879
Kanpezu	1,3	0,9	0,2	-7,1	2.954
Trebiñu	33,2	8,1	5,9	-8,6	1.827
ARABA	3,4	4,7	4,2	0,4	325.953
<i>Euskal A.E.</i>	<i>0,8</i>	<i>2,0</i>	<i>1,7</i>	<i>-0,2</i>	<i>2.191.361</i>
<i>EB</i>	<i>1,1</i>	<i>1,6</i>	<i>0,8</i>	<i>1,2</i>	<i>510.284.430</i>


Oharra: Araba eta Euskal A. Erkidegoko datuek Trebiñu barnebiltzen dute.

Iturria: EUSTAT eta INE.

Milurtekoaren hasierak 90. hamarkadako hazkunde demografikoa berrindartu zen Arabako lurraldean, eta horrela, egun herrialdeak 2000 urtean baino 38.144 biztanle gehiago dauzka. Hazkunde demografiko honek lurralde osoan du isla, baina modu ahulagoan Aiarako eta Kanpezuko kuadrilletan. Abagune ekonomiko berriak, ordea, joera demografikoa aldatu du, eta hiriburua biztanleria kopurua apaldu ez duen bakarria bada ere, hazkunde erritmoa moteldu du nabarmen.


BILAKAERA 2012/16

Harana	-14,7
Bernedo	-12,1
Trebiñu	-8,7
Eskuernaga	-8,5
Samaniego	-8,5
Argantzun	-8,4
Zanbrana	-7,4
Moreda Araba	-6,9
Kanpezu	-6,8
Lagran	-6,7



7.1.2. GAZTEEN PRESENTZIA

15-29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIA (%) 2016 URTEA




Gazteen gabezia oso nabarmena da Trebiñun, Kanpezun eta Añanan.



Ezaguna da Europar Batasunean gazteen urritasuna, baina Araban soilik herritarren %13,1ak 15 eta 29 urte bitarteko adina dauka. 90. hamarkadan izandako jaiotza bolumen urriaren ondorioz, egun gazteek presentzia mugatua dute lurraldean.

15-29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIA (%)

2016



BILAKAERA 2006/16




7.1.3. EMAKUMEZKOEN PRESENTZIA

Trebiñu, Kanpezu eta Añanako kuadrilletan emakumezkoen gabezia dago.

Emakumezkoen gabezia lurralde desoreken isla izan ohi da, eta arabar geografian, badira zenbait inguru emakumezko gutxi dituztenak. Trebiñu, Kanpezu, Añanan, eta maila apalagoan, Gorbeialdean ere, lan adinean diren herritarren artean emakumezkoen proportzioa nahiko apala da.


EMAKUMEZKOAK LAN ADINEKO (15-64 urte)
2016 URTEA



EMAKUMEZKOAK LAN ADINEKO BELAUNALDIETAN (%)

BILAKAERA 2006/16

2016



Lan adina: EBko irizpideak jarraituz, 15 eta 64 urte bitarteko biztanleria aintzat hartu da.

7.1.4. MIGRAZIOEN BILAKAERA

ALTAK-BAJAK UDAL ERROLDAN ETA MIGRAZIO SALDOA ARABAKO KUADRILLAK, 2012/2016.

	Kopuru gordina (metatua)			Biztanleria (%)
	Altak	Bajak	Saldoa	Saldoa
Gasteiz	37.453	32.208	5.245	2,2
Aiara	5.403	5.450	-47	-0,1
Lautada	3.138	3.167	-29	-0,3
Arabar Errioxa	3.149	3.307	-158	-1,3
Gorbeialdea	2.559	2.690	-131	-1,8
Añana	2.877	2.864	13	0,1
Kanpezu	682	815	-133	-4,2
Trebiñu	692	865	-173	-8,7
ARABA	55.953	51.366	4.587	1,4
<i>Euskal A.E.</i>	<i>420.208</i>	<i>396.406</i>	<i>23.802</i>	<i>1,1</i>

Oharra: Udalerrietako alta eta bajak aintzat hartzen dira. Kuadrillen balizko barne migrazioa barnebilduta.


Iturria: EUSTAT eta INE.

2012 urtetik
biztanleriaren
%8,7ak
alde egin du Argantzun
eta Trebiñutik.
Kanpezuk ere galera
oso nabarmena izan du.

2012 urtetik Arabako migrazio saldoak orotara 4.587 biztanle gehiago utzi ditu herrialdean. Azken urte hauetan Gasteiz izan da modu garbian migrazio saldoaren ondorioz bere biztanleria bolumena gehien handitu duen lurraldea. Kontrara, Harana udalerriak biztanleriaren %10,8a galdu du azken lau urteetan. Migrazio joerak belaunaldika behatuz gero, 16-34 urtekoen galera Gorbeialdea, Lautada eta Aiara ematen da, aldiz, 35-64koen belaunaldi galera garrantzitsuen Trebiñun eta Kanpezun kokatzen da. Emakumezkoen galera orokorra izan da lurralde osoan, Gasteiz eta Aiara salbu.


UDAL ERROLDAKO ALTA-BAJEN ONDORIOZKO MIGRAZIO SALDOA (%)

2012/16 EPEALDIA




ALTA-BAJEN ONDORIOZKO MIGRAZIO SALDOA, SEXU ETA ADINAREN ARABERA (%)

ARABA, BILAKAERA 2012/16




Gasteiz vs. Trebiñu. Polarizazio horretan koka genitzake Arabako lurraldean gertaturiko migrazio joerak. Trebiñuko joeran leudeke argi eta garbi Kanpezu, Lautada eta Gorbeialdea. Gainontzeko lurraldeetan ñabardura gehiago daude.




7.2. BELAUNALDI OREKA

7.2.1. EGITURA DEMOGRAFIKOAREN OREKA




Arabako demografia egiturak, Europar Batasunekoa bezala, jaiotza eta heriotza tasa apal eta bizi-itxaropen luzearen ondorioz, tipula itxura hartzen du: zahartutako gizarte baten irudia da gurea. Araban 35 eta 59 urte bitarteko belaunaldiak dira ugariak, eta errealitate hau kuadrilla gehienetan ematen da.


BIZTANLERIAREN BANAKETA, BELAUNALDIEN ARABERA (%) 2016 URTEA



GASTEIZ




AIARA




ARABAR ERRIOKA



LAUTADA




GORBILDEA





AÑANA



KANPEZU




TREBIÑU



7.2.2. ZAHARTZE DEMOGRAFIKOA

ZAHARTZE TASA (%)

2016 URTEA




Kanpezu eta Aiara dute zahartze tasa handiena, landa-eremuaren eta 60-70ko izaera industrialeko eremuaren gaitz moduan, hurrenez hurren.

Aipaturiko egitura demografiko zahartuan, egun arabarren %19,8ak 65 urtetik gorako adina dauka. Europar Batasunean proportzioa parekoa da. Zahartze tasa txikiena Trebiñun ematen da, eta biziberritze demografikorik egon izanaren zantzurik ez dagoenez, adinekoen alde egiteko joerari erantzuten dio.

ZAHARTZE TASA (%)

2016

BILAKAERA 2006/16




64.657

adineko geografian
barrena

Adinekoen Belaunaldi Indizeak adinekoen bolumena eta hauen zaintzaz arduratu daitekeen biztanleriaren bolumena alderatzen ditu. Araban, adineko bakoitzeko 2,3 biztanle daude 35 eta 64 urte bitartean. Ez da proportzio txikia, 35 eta 64 urte bitarteko belaunaldia egun handia baita 60-70. hamarkadetako industrializazio garaiko gazteen etorrera eta orduko jaiotza kopuru oparoaren ondorioz. Edonola ere, egungo egitura demografikoa behatuz gero, datorren hamarkadetan proportzio horrek etengabe apaltzeko joera izango duela nabarmena da.

Arabako kuadrillen artean, Trebiñuk du *Adinekoen Belaunaldi Indize* handiena, adinekoen urritasuna medio. Kanpezuko errealitatea bestelakoa da.

ADINEKO ETA 35-64 URTE BITARTEKO BIZTANLERIA ARABA, 2006/16




ADINEKOEN BELAUNALDI INDIZEA ARABAKO KUADRILLAK, 2016

	35-64 urteko belaunaldia	Adinekoak (65 urte eta +)	ADINEKOEN BELAUNALDI INDIZEA
Gasteiz	110.349	48.825	2,3
Aiara	15.712	7.514	2,1
Arabar Errioxa	4.967	2.262	2,2
Lautada	6.079	1.876	3,2
Gorbeialdea	4.798	1.612	3,0
Añana	4.436	1.551	2,9
Kanpezu	1.406	808	1,7
Trebiñu	1.040	209	5,0
ARABA	148.787	64.657	2,3
<i>Euskal A.E.</i>	<i>994.848</i>	<i>469.675</i>	<i>2,1</i>
<i>EB</i>	<i>210.989.394</i>	<i>97.625.373</i>	<i>2,2</i>

Oharra: Araba eta Euskal A. Erkidegoko datuek Trebiñu barnebiltzen dute.
Iturria: EUSTAT eta INE.

ADINEKOEN BELAUNALDI INDIZEA


2016



7.3. NAHIKOTASUN DEMOGRAFIKOA

7.3.1. BEREZKO BIZIBERRITZE GAITASUNA


JAIOTZA-HERIOTZEN ONDORIOZKO SALDOA (%)



JAIOTZAK (MILA BIZTANLEKO)

■ 2008/12 epean urteko batz bestekoa

■ 2012/15 epean urteko batz bestekoa



2012az geroztik jaiotza tasa apalagoa da Arabako kuadrilla guztietan. Jaitsiera hori oso nabarmena da Gorbeialdean. Añanak ere jaiotza tasa apala dauka egun.


50,2koa

da Trebiñuko ugalkortasun tasa


Trebiñu eta Lautadako azken urteetako ugalkortasun tasa Europar Batasunak duenaren gaineratik kokatu da. Hau da, jaiotza kopuru handiagoa izan dute ama izateko adinean diren emakumezkoekiko proportzioan.

Ugalkortasun apalagoa izan dute, ordea, Añana eta Gorbeialdeak.

UGALKORTASUN TASA (%)
2012/15 (URTEKO BATAZ BESTEKOA)




HERIOTZAK (MILA BIZTANLEKO)



Biztanleriaren zahartzeak heriotza tasaren gorakada orokorra ekarri du, bereziki Trebiñun eta Kanpezun. Azken kuadrilla honetan jaiotza eta heriotza tasen arteko alde handia dago, hortaz hazkunde naturala negatiboa izan da nabarmen.

7.3.2. BELAUNALDIEN BIZIBERRITZEA


HAURREN ORDEZKATZE JOERA (%)



Egun lurralde gehienetan handiagoa da 0 eta 7 urte bitarteko haurren kopurua 8 eta 15 urte bitartekoena baino. Ondorioz, Haurren Ordezkatze Indizea 100tik gorakoa da. Salbuespen bakarra Gorbeialdea da. Hau da, Gorbeialdean ordezkatze joera ahula da.

Haurren Ordezkatze Indizea: 0-7 urte bitarteko haurrak 8-15 urte bitarteko 100 haurreko.


GAZTEEN ORDEZKATZE GAITASUNA



Haurrekin gertatu bezala, egungo gazteen bolumena ordezkatzeko nahikotasun demografikoa dute Arabako kuadrilla guztiek. Hau da, 0 eta 14 urte bitarteko bolumena 15 eta 29 urte bitartekoena baino handiagoa da. Arrazoiak bi dira: jaiotzen bolumenak lurraldean izan duen bilakaera historikoa batetik, eta gazteen (15-29 urte) barne mugikortasuna bestetik.

Gazteen Ordezkatze Indizea: 0-14 urte bitarteko haurrak 15-29 urte bitarteko 100 gazteko.


BALIZKO LANESKUAREN ORDEZKATZE GAITASUNA




Europar Batasunean berezko gaitasunekin nekez ordezkatu daiteke hurrengo hamarkadan zehar erretiro adinera helduko den biztanleria bolumena. Araban, 55-64 urte bitarteko ehun biztanleko 20-29 urte bitarteko 69 biztanle daude soilik. Fenomeno hau kuadrilla guztietan ematen da, modu apalagoan Arabar Errioxan eta Gasteizen 20-29 urteko biztanleria erakartzeko gaitasunaren leunduraz. Kanpezu eta Trebiñuko egoerak, zehazki, badute nolabaiteko larritasun maila.

Balizko Lan-eskuaren Ordezkatze Indizea: 20-29 urte bitarteko biztanleria 55-64 urte bitarteko 100 biztanleko.

Gorbeialdea salbu, kuadrilla guztiek dute datozen urteotarako haurren ordezkatzeko sendoa. Udalerrri mailan, ordea, Harana, Zuia, Iruraiz-Gauna, Mañueta, Bilar, Urizaharra edo Zalduondok, egungo haur kopurua ordezkatzeko gaitasun apala izango dute. Bi udalerritik bat egoera honetan da, kasu guztietan udalerrri txikiak dira.




Moreda Araba, Añana, Eskuernaga, Lagran edo Navaridasen egungo gazteen bolumena ordezkatzeko zailtasun handiak izango dira datozen hamabost urteetan. Baina ordezkapenerako zailtasunik ez dago Arabako udalerrrien %74an.




17 udalerritan

ez dago hurrengo hamarkadan lan-eskuaren erdia ere ordezkatzeko gaitasunik. Navaridas eta Samaniego dira herrialdeko salbuespen bakarrak.




7.3.3. BIZTANLERIA MANTENTZEKO ETA ERAKARTZEKO GAITASUNA

UDALERRI BEREAN JAIO ETA BIZI DEN BIZTANLERIA (%)




Arabarren %46,2a jaio den udalerrri berean bizi da. Euskal A.E.n proportzio hori %41,6ra jaisten da. Kuadrillen arten, Gasteizek bertan jaio eta bizi den herritarren multzo handiena dauka. Hiriburuan mugikortasun joera desberdinak daude, hiriburu izateak lurraldean eragiten duen indar zentripetoa tartean. Ostera, Trebiñun bizi direnen artean oso gutxi dira udalerrri berean jaio direnak. Añanan, Lautadan eta Gorbeialdean ere hauen proportzioa ez da handia.

ARABAKO BESTE UDALERRI BATEAN JAIO DEN BIZTANLERIA (%)



Herrialdeko udalerrri batean jaio eta beste batean bizi diren herritarren proportzioa mugatua da Gasteizen, Aiara zein Arabar Errioxan. Gainontzeko kuadrilla gehienetan, ordea, kopurua garrantzitsua da. Udalerrri txikietan mugikortasun joera handiagoa dela aintzat hartu behar da.


ARABATIK KANPO JAIO DEN BIZTANLERIA (%)




Arabatik kanpo jaiotako herritarren proportzioa oso garrantzitsua da Aiara eta Arabar Errioxan. Bi kuadrilletan elementu komun bat dago: Gasteiz ez da lurralde egituraren ardatz nagusi bakarra eta Bilbo eta Logroñoren eragin-eremuan kokatzen dira. Bestalde, Aiara industrializazio garaian Espainiar Estatuko etorkin fluxu garrantzitsua bereganatu zuen. Arabar Errioxak, aldiz, berriki bereganatu ditu atzerriko etorkinak.

Oharra: Trebiñun Gaztela eta Leonetik kanpo Espainiar Estatuan jaiotako herritarrak arabar gisa aintzat hartu dira. Trebiñutik kanpo Araban zehar bizi diren trebiñuarrak, aldiz, ezin izan dira arabar gisa kuantifikatu.

Azken hamarkadan Arabako udalerrien %64ek udalerrian bertan jaiotako biztanleria galdu dute. Galera hori oso nabarmena izan da Añana udalerrian, Haranan, Trebiñun, Moreda Araban, Bernedon edo Mañuetan. Ugalkortasun biziko udalerriek, ordea, indartu egin dute.



Bilakaeraren ikuspegitik, esan beharra dago azken hamarkadan etxebizitza parkea indartsuki handitu duten udalerriek beste inguruetako arabarrak erakarri dituztela, Iruña Oka edo Dulantzi, kasu. Gasteizen gertaturiko gutxitzeak 60 eta 70 hamarkadetan hiriburura joandako segmentuaren gaineko hilkortasun handiari erantzun diezaioke.



Gutxi dira azken hamar urte hauetan Arabatik kanpoko biztanleria galdu duten udalerriak. Etorrin fluxu berrien testuinguruan, Lautadako udalerrietan eta Añana kuadrillako ekialdeko udalerrietan hazkunde indartsua eman da, hala nola Arabar Errioxako gehientsuenetan, Zigoitia edo Urkabustaizen.

